

ARETHA FRANKLIN:

Argia pasatzen uzteko zeruak ireki zituen emakumea > 4

INDARKERIA MATXISTA:

Defendatzeko erreminta teknikoak eta psikologikoak gida batean > 12

2018ko irailaren 15a | XII. urtea • 586. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



NATURA ETA BALIOAK, AZTERGAI

IPBES GOBERNU ARTEKO PLATAFORMAK NATURAREN EKARPENEN ASKOTARIKO BALIOAK IKERTUKO DITU UNAI PASCUAL BC3 ZENTROKO TALDE ZIENTIFIKOKO KIDE ETA IKERBASQUEKO IKERLARIAREN ZUZENDARITZAPEAN. GASTEIZTARRAK LUZE DIHARDU NATURA, EKONOMIA, EKOLOGIA ETA BALIOAK HIZPIDE. > 22

Jaizki FONTANEDA | FOKU

Aretha Franklin, emakume natural-naturala 04

«Gosetearen Harria», Txekian 07

Txagosko garbiketa etnikoa epaitzen ari dira Hagan 08

Emakumeek emakumeentzat egindako defentsa gida 12

NOR, antiespezismoa justizia sozialaren borrokan kokatu nahi duen kolektiboa 18

E.lkarrizketa: Unai Pascual 22

Vuelta Euskal Herrian 26

In fraganti: Katerin Artola 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Gorka Elejabarrieta:** Adostu edo ez adostu, hor dago koska
- 10 **Ander Gortazar:** Kuartelak
- 11 **Mikel Zubimendi:** Plastiko beltza, zisne beltza
- 17 **Alai Zubimendi**
- 20 **Gorka Zozia:** Ez sinistu pentsatzen duzun oro
- 21 **Iker Barandiaran:** Isiltasuna
- 27 **Xabier Mikel Errekondo:** Miopeak gara laino artean
- 27 **Maidier Iantzi:** Ziztu bizian
- 31 **Garazi Goia:** Kafe-etxeetako espezieak



{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Adostu edo ez adostu, hor dago koska

Eskoziarekin, Faroe uharteekin, Flandriarekin, Irlanda iparraldearekin, Groenlandiarekin eta beste hainbatekin amets egiten dugu, baina, eguneroko politika erabaki behar dugunean, espainiar Estatuaren demokrazia ezarekin talka egiten dugu. Gurean, gaur-gaurkoz, ez dago autodeterminazio eskubidea onartuko duen Estatu espainiarrik, ezta Estatu frantziarrik ere (buruan izan azaroan Estatu frantsesaren menpe dagoen Kanakyk independentzia erreferendum adostua egingo duela).

Egia da, injustizia bat da, ez da bidezkoa, askoz ere demokratikoagoak dira autodeterminazio eskubidea onartzen duten estatuak. Baina hori da errealitatea. Errealitate gordin horrek eztabaida eta erabaki politiko oro guztiz baldintzatzen du. Gurean, eztabaida –abertzaleen artekoa, behintzat–, beharko lukeenaren kontra, ez baita errepublika independente baten sorrerak ekarriko lituzkeen onuren eta galeren ingurukoa, bai-zik eta bidearen hautuari buruzkoa. Eta bidearen inguruko irakurketa eta erabaki desberdinek aliatuak izan beharko luketenen arteko harremanak mikaztu egiten dituzte erabat, ia-ia arerio edo etsai bihurtu arte.

GARAPEN DEMOKRATIZATZAILEA

Badago modurik, biderik, noizbait, espainiar Estatuak eta frantziar Estatuak Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea onar dezaten? Badago, beraz, erreferendum adostu bat gauzatzeko inolako esperantzarik? Espainiar Estatuak demokratizatzerik ba al dago? Zenbat denbora eta belaunalditan? Eta, bitartean, zer?

Egia da azken hamarkadotan gai honen inguruan Europako hainbat estatutan garapen demokratizatzaile bat eman dela, beste gai batzuetan bezala. Adibide bat jartzearen, Margaret Thatcherren gobernu britainiarrak nekez adostuko luke erreferendum bat Eskozian. Ba al dago adierazlerik pentsatzeko Europako zenbait estatutan ematen ari den garapen hori, noizbait, laster, espainiar Estatuan ere gertatuko denik? Ez, errealitateak kontrakoa erakusten digu.

Bestalde, ba al dago espainiar Estatuarekin adostu gabeko bide errealistatik independentzia eskuratze-

ko? Munduan gauzatu diren independentzia prozesu gehienak estatuen legeen kontra burutu dira, oso gutxi dira modu adostuan gauzatu direnak. Argi dago gehiengo baten babes argia eta nazioarteko onarpena (ez baitezpada berehalakoa eta ahobatezkoa) behar-beharrezkoak eta agian ez nahikoak direla bide horretan, baina, berriz, aukera errealik ba al dago edo ametsa baino ez da? Bide horren aukeraketak ekar ditzakeen ondorio latzak ondo ezagutzen ditugu, Kataluniako prozesuak berriz gogorarazi dizkigu.

ESTRATEGIA ERAGINKOR ETA ERREALISTA

Galderak horiek dira, eta horiei ematen dizkiegun erantzun diferenteak, gainditu beharreko oztopo nagusiak. Eta gure artean irakurketa horren ezberdinak egiten ditugun bitartean, zaila izango dugu independentziaren aldeko estrategia eraginkor eta errealista bat martxan jartzea.

Bien bitartean, badira akordioa behar-beharrezkoa dela aldarrikatzen duten asko, inolako pausurik eman aurretik ezinbesteko baldintzatzat dutenak. Batzuetan, argudio tankera baino, aitzakia itxura hartzen diet horrelakoei. Edozein kasutan, horrelako jarrerak Estatuari beto eskubidea aitortzen diote. Borrokatu beharrik gabe garaipena oparitzen zaio Estatuari, KO bidez gainera. Kasu onenean ere, hau da, dauzkagun datu eta esperientzia ororen kontra, pentsa dezagun minutu batez Estatuaren demokratizazio hori gertatzerik badagoela –artikulu hau zientzia fikzioaren generora hurbiltzen ari da abiadura bizian–. Bada, kasu horretan ere, benetako demokratizazioa ekarriko lukeen jarrera eta bide bakarra, nire ustez, prozesuan, akordioa noiz heldu itxaron gabe, aurrerapausoak ematen jarraitzea litzateke. Erresuma Batuak Eskoziako erreferenduma, Eskoziako Parlamentuak eta Eskoziako Gobernuak erreferenduma egingo zutela erabaki eta gero adostu zuen, ez aurretik. Zertarako aldatuko du estatu batek bere jarrera horrelako gai kapital baten inguruan horretarako bere burua behartuta ikusten ez badu? Epe labur, ertain eta luzea kontuan hartu behar ditugu. •

ARETHA FRANKLIN

Argia pasatzen uzteko zeruak ireki zituen emakume natural-naturala

 **KULTURA /** Mikel Zubimendi Berastegi

Aretha Louise Franklin 1942. urteko martxoaren 25an jaio zen Mississippiko erriberako Memphis hirian (Tennessee), eta iragan abuztuaren 16an hil zen bere etxean, Detroiten, 76 urte zituela, pankreako minbiziak jota. Mundu osoko irratiek egunak eta asteak eman dituzte bere kantuak jartzen, haren presentzia atrapatzeko, betikotzeko. Kantari handi eta boteretsua zen, sinestun amorratuena berrerosi ezin daitekeen ateo bihurtzen zuena bere erregistro zabal, sentikor, beltz eta ebanjelikoe-kin. Beste inork ez bezala kantatu zuen bluesa, aingeru baten pare gospela, eta soulari estilo errepikaezin, dotore, aiurri, fededun eta profanoa eman zion.

Aretha Franklinen ahotsa purua zen, mingarria. Ameriketako Estatu Batuetako historiaren eta bizipenen, afroamerikarren existentzialismoaren eta esperientzia kolektiboaren, bere bizitza propioaren adierazpen ahaztezina zen. “Soula-
ren Erregina” deitu zuten, negar egin behar denean barre egiten ez zekielako, malkoak ez zituelako ezkutatzeko, sekula faltsu, beti egiazko zelako. Eta bai, otoitza, maitasuna, desira, poza, desesperantza, estasia, feminismoa, *Black Power* edo Botere Beltza... berarekin alde-ratuz gero, artista gutxi eman dute bere denboraren lekukotza modu sakon eta ederragoan.

KANTUAK BIZITZAZ BETE

Hunkitzen zuen artista zen, musika herrikoia-
ren titana, di-
va paregabea. Jendearen emozioak kolpatu baino askoz ere gehiago egiten zuen, bere

Historiaren panteoira igo berri da Aretha Franklin abeslari afroamerikar ezaguna. Eta atsekabetuentzat irakasgai, bidaia hori bizitzan zen bezala egin du: emakume boteretsu gisa. Zalantzarik ez izan, botere horren irismen artistiko, politiko, espiritualak betiko harrapatuko gaitu.



Bere ahotsaren egia entzuten zen. Sufritzen dutenen garrasiaren hotsa, bluesaren aienea, gospela oi-hu eginda, jazzaren bat-batekotasuna. GAUR8

adierazmen gaitasunarekin, transmititzen zuen ziurtasunarekin –imitatzaile txarrek ahots bolumenarekin nahasten dutena– ez zituelako soilik kantuak interpretatzen: bizitzaz betetzen zituen.

Memphisen, gospelaren eta bluesaren sehaskan, sei urte bete arte bizi izan zen. Gero, aita, lau anai-arreba eta amonarekin Detroitera jo zuen, amak, Barbarak, piano-jotzaile eta kantaria, etxetik ihes egin

ostean senarraren jipoietatik eta poligamiarako joera nabar-menetik ihesi. Clarence La-Vaughn Franklin artzain baptistaren alaba zen Aretha. Aita Detroiteko sermolari beltz ospatuena zuen, bere eliza afroamerikararentzat habi kultural eta erlijiosoa izan zen. Karismatikoa zen oso Aretharen aita, popularra, bere sermoiak milioika pertsonengana iristen ziren irratiz. Batzuetan, baina, gizon krudela ere bazen.

Aretharen aitak familiaren etxea lagun musikariek be-tetzen zuen (Duke Ellington, Della Reese, Nat Cole, Mahalia Jackson...), baita Martin Luther King eta Jesse Jackson bezala-ko eskubide zibilen aldeko ekintzaile ezagun askorekin ere. Hortaz, otoitz, aldarrikapen eta musika giro betean hazi zen Aretha. Hori bai, amorrutaz beteriko mehatxuzko hodeiak ere ez zituen faltan izan alboan.

Gurasoen jokabideak Aretharen inozentzia arantzez bete zuen, eta, haurra zenetik, musikan topatu zituen sosegua eta bakea. Zazpi urterekin pianoa, bolizko eta ebanozko erraldoi hori, bezatu zuen. Bere ahotsaren atzean pianoa jotzean, moldaketak egiterakoan, inteligentzia musikal itzela zuen, prodijio hutsa zen. Indarrez eta histori-
az beteriko aho-
tsa zuen.

Detroiteko New Bethel eliza baptistan formatu eta findua, aita pulpituaren errege zen bitartean gospelaren erritmo eta kadentziak barneratu zituen Arethak, tenplua eta familiako etxea bisitatzen zuten musikari beltzen magia bereganatuz. Familiako lagun-
en sen politi-
koa ere barneratu eta oinorde-tzan jaso zuen: beti izan zituen bidaide damurik gabeko harrotasun afroamerikarra eta militantearen duintasuna. Be-rezko zuen talentua beltzen askatasunaren aldeko kausa bultzatzeko baliatzeko ausardia ere ez zuen faltan izan.

AMA, EMAZTE, EKINTZAILE, DIVA

Amatasuna oso goiz ezagutu zuen ama, emaztea, ekintzaile, piano jotzaile, musikaren titana... izan zen. Lehen semea, Clarence, 12 urte zituenean izan zuen, eta, bigarrena, Edward, 14 urterekin. Beste bi



Aretha Franklinsen kantuen espirituak natural egin zuen beti bat bizi izan zituen garai mugituekin.
GAUR8

ume gehiago izan zituen gero, eta bi aldiz ezkondu zen.

Errege, estatuburu eta presidenteentzat kantatu zuen, eta, beti, berdinetik berdinerara tratatu zituen denak. Nazioarteko izarra zen, dena zuen alde: kritikaren txalo-jotzea eta arrakasta komertziala. Eta famaren tontorrean zela, Angela Davis ekintzaile afroamerikarra defendatzeko ez zuen sekula ere aitzakiarik jarri. Bi urteko diferentziarekin jaiotakoak biak, Angela Davis eta Aretha Franklin, biak izan dira indartsuak, distiratsuak, engaiatuak, beren belaunaldiko emakume beltzen edertasun desafiatazailearen ikur. Davis ekintzailea publikoki defendatzerakoan, Franklinek ez zuen sekula entzuleak galtzeko beldurrik izan, ez zuen pentsatu jarrera hark ateak itxiko ote zizkion. Bizi zuen denborari abesten ziolarako, integritate pertsonala oina-

rri. Horixe baita Aretharen ahotsean entzuten duguna: egia. Espiritualtasuna, lurrean sufritzen dutenen garrasiaren hotsa, bluesaren aienea, gospelaren oihiu ozen bihurtuta, jazzaren bat-batekotasuna. Aretha ez zen sekula lotsatia edo eratsua izan. Guztiz sentsuala zen, espiritualki transzendentala.

ERRAIETAKO FEDE FISIKOA

Aretharen kantaera oso-oso berezia zen. Ahotsa erregistro altuetara erraztasun ikaragarriaz eramaten zuen, eta, trebetasun berarekin eraman zezakeen baxuenetara ere. Bere adierazkortasuna ez zen ez ez-tia ezta biolentoa ere, sendoa eta segurua zen, erraietakoa, fede fisikoaren lekukotza. Xarma monumentalaren zuen, erakargarritasun partikularra.

Emakume naturala zen. Jainkoa ezagutzen zuen eta baita irrika erotikoa ere. Biak batera

besarkatu zituen, gose espirituala eta behar sexuala, bietan jarrai. Sinismen erlijioso sendoak gorabehera, nahi artistikoak betetzeko gospel musika espirituala moldatzeko bide sakon partikularra asmatu zuen, aurrez inongo kantarik asmatu gabea.

AEBetako beltzen tradizio musikala irentsia zuen, elizako kantari izatetik baladak kantatzera pasatu zen, soularen historiaren kantari onena izatera

Andre naturala zen. Aitzindaria izan zen gospelaren kadentzia eta larrua jotzen ari diren amoranteena lotzen, sakratua haragi bihurtzen eta sexua espiritual, biak eskutik

Otoitza, maitasuna, desira, poza, erotismoa, desesperantza, estasia, feminismoa, «Black Power» edo Botere Beltza... artista gutxik eman dute bere denboraren lekukotza sakonagoa

iristeraino. Erregina zen, subiranorik, eskola zaharrekoentzat heresia zirudiena egitera ausartu zen bide-erakuslea. Soulari sexu desira injektatu zion, eta, horrela jokatu, Madonna edo Beyonceren aitzindari izan zen. Bera izan baitzen aurrena gospelaren kadentzia eta larrua jotzen ari diren amoranteena lotzen, sakratua haragi bihurtzen eta sexua espiritual, biak eskuz esku.

FEMINISMO GLOBALAREN ERESERKI

Aretharen harribitxi musikal asko daude, eternitatea lortu duten kantu pila bat utzi dizkigu. "A Natural Woman" edo "Chain of Fools", esaterako. Baina, bere kantu gogoangarrien artean, ez da egongo berarekin estuago lotua den abestirik "Respect" ezaguna baino -jatorrian Otis Redding maisuak idatzitakoa, gizon baten emazteari errespetua eska-

tzeko-. Arethak zentzuz aldatu zuenean, emakumeak gizonari errespetua eskatzeko, askatasunaren aldeko ereserki bilakatu zen: letraz letra kantatzen zuen “R-e-s-p-e-c-t” aldarrikapen feminista global bilakatu zen. Lizunkeria nabarmenez korapilatutako duintasunaren aldeko aldarri. Izan ere, ekin-tza politikora deitzen duten kantuak daude. Amodiozko kantuak daude. Kantu sexualak ere bai. Baina ez daude hiru elementuok uztartzen dituen “Respect” bezalako kantu asko. Kantuaren espirituak natural egin zuen bat bere garaiarekin, neskek ahotsak altxatu zuten garai batekin, minigonak janzten eta antisorgailuak erabiltzen hasiz.

Historiaren panteoira igarotzen ikusi dugu Aretha. Eta hil ostean ere atsekabetuak gidatzen jarraitzen du, emakume indartsu, boteretsu gisa. Bote-re horren tamaina artistiko, politiko, espiritualak hatz erakuslearekin seinalatzen gaitu. Aretharen ahots miresgarriak eztarrian ezkutatua zuen zer mistiko, aingerutar eta profanoa erakusten digu. Azken finean, bere ahotsak, melodiarekin jokatzeko maisutasunak, Aretha nor zen eta gu nor garen iradokitzen digu. Zabala goa den zerbaiten, joan-etorri baten parte gisa.

ESPIRITUZ, ESKUZABAL

Graziaz beterikoa zen Aretha. Dena ematen zuen mikrofonoren aurrean, eta, hala, musikaren tontorrera iritsi diren gutxi horiekin bat egin zuen. Emakumea eta beltza izanik, eta harro zoragarri aldarrikatzeagatik, borroka bikoitza izan zuen gainera. Bere ahots sinestezinak, interpretaziorako indarrak eta bizi izan zituen garaien berotasunak, bai-



na, mitoa eraiki dute, behin betiko. *Respect* Aretha Franklin, betiko argia zuri.

Aurrerantzean, beti eta betiko inspiratuko gaitu Arethak,

Arethak inoiz ez zuen beldurrik izan bere talentua harrotasun afroamerikarraren aldeko kausa bultzatzeko.
GAUR8

ordezkatu zuen, ordezkatzeko duen eta ordezkatzeko duen horregatik guztiagatik: egiazko artista baten ausardia eta hauskortasuna, ekintzaletasun

nekaezina, emakume beltzen edertasun definiezina, neurri-rik gabeko adorea eta bihotza, bi hitzetan, espirituaren esku-zabaltasuna.



MICHAL CIZEK | AFP



IKUSMIRA

«GOSETEAREN HARRIA» BISTAN TXEKIAN, ELBA IBAIERTZEAN

«Gosetearen Harria» bezala ezagutzen da (alemanez «hungerstein»). Duela mende bat pasa, 1904an, Elba ibaiaren inguruetan pairatzen ari ziren lehortea gogoratzeko mezu ikaragarria izkiriatu zuten harrian lanik gabe geratutako baltsa-gidariek. «Ikusten banauzu,

egizu negar», irakurtzen da uda honetan Erdialdeko Europak pairatu duen sikateak Elba ibaiertzean begi bistan utzi duen harrian. Garai hartan, Txekiako Decin herriko jendea ogibiderik gabe geratzen zen ontziek ibaian barrena ibiltzerik ez zutenean. Argazkikoaren pareko hogeit bat «Gosetearen Harri» daude Elba ibaian zehar, zaharrena 1616an zizelkatutakoa. XX. mende hasieran, Morabiarekin batera egungo Txekiar Errepublika osatzen zuen Bohemia, Decin tartean, Austria-Hungariako Inperioaren baitan zen. Egun 50.000 biztanle ditu eta gero eta sarriago ikusten da bertako harria, aldaketa klimatikoaren ondorioz. Gobernuak presa bat egiteko asmoa du, eta ekologistek ingurumenean ondorio larriak izango dituela ohartarazi dute. Dabid LAZKANOITURBURU

GENOZIDIO EZKUTUA AUZIPEAN

Txagos: inperio angloestatubatuarraren garbiketa etnikoa epaitzen ari dira Hagan

 **POLITIKA /** Mikel Zubimendi Berastegi

Txagos uhartedia, Indiako Ozeano-ko zazpi atoloik osatutako artxipelago ederra, hondartzez eta palmondoz beteriko 60 uharte tropikal eguzkitsuk osatzen dute. Duela mende erditik, baina, bertako herritarrek sorterrira itzultzeko eskubidea ukatuta dute. Txagostarren historia beldurgarria da: bortxaz kanporatuak, gezurrekin engainatuak, traizionatuak eta pobrezia makurrenara kondenuatuak izan dira.

Txagostarren estutasun eta nekeak 1965ean hasi ziren, gobernu britainiarrek kolonia ohia zuen Maurizio hiruroi milioi liberen truke Txagos eros- tean. Maurizio errepublika independente bilakatu baino hiru urte lehenago ebatsi zioten bere lurraldearen puska handi hori, mehatxu bidez: «Independentzia Txagos barik ala gerra Txagos galtzeko».

ARMA NUKLEARREN TRUKE

Aurrerantzean, Indiako Ozeano-ko Britainiar Lurraldea bilakatu zen artxipelagoa, eta, 1966an, britainiarrek Ameriketako Estatu Batuekin egindako akordio bati esker, bertako uharte handiengan, Diego Garcia uhartean, eskualdeko AEBen lehen base militarra eraiki zen. Diego Garcia 50 urterako alokatu zuten estatubatuarrek, alokairua beste hogeituz luatzeko aukerarekin; trukean, britainiarrek arma nuklear estatubatuarrek erosteko beherapenak lortu zituzten. Hots, giza eskubideak arma nuklearren truke, txagostarren geroa idatzita utziz.

Zituzten helburuak bete ahal izateko, kolonizatzaileek, orduko kablegramek jasotzen

Tortura, deportazioak, garbiketa etnikoa... munduan gutxien ezagutzen den genozidioa Nazioarteko Justizia Auzitegira iritsi da, eta txagostarrek pairatutako krimena epaitzen ari dira Hagan. Txagos uhartedia lapurtu zioten Maurizio eta Britainia Handia metropoli ohia aurrez aurre dira, tartean Diego Garcia AEBek munduan duten base militar handienetarikoa etorkizuna jokoan dela.



duten bezala, «txoriekin batera, jatorri iluna duten bertako ‘tarzanak’ eta ‘Man Friday’-ak ere [Daniel Defoeren eleberrian Robinson Crusoe bere zerbitzari indigenari jarri zion izena gogoan] kanporatu behar» izan zituzten. Hala, belaunaldiz belaunaldi uhartean bizitako 2.000 pertsonako populazioa kanporatu egin zuten britainiarrek, historia modernoko garbiketa etnikoko krimen nabarmenetarikoa burutuz: sorterrira uzten ez bazuten tirokatu edo bonbardatu egingo zituztela esan zieten herritarrei eta ia mila txagostar nabe batean giltzapetu eta gaseztatu egin zituzten. Hainbat herritar opor edo mediku tratamenduen aitzakian ere kanporatu zituzten, eta ostean ez dute sekula uhartera itzultzetik izan. Sorterrira uzteari uko egin ziotenek, berriz, janari eta medikamendu gabe nola utzi zituzten ikusi zuten; hornikuntza itsasontziak uhartean porturatzeari utzi zioten. Azkenetako, 1973rako, txagostar denak kanporatu zituzten bertatik.

Seychelleetara eta Maurizio uhartera jo zuten kanporatuek. Bertako populazioaren ongi etorririk gabe, pobre eta etxegabe, txagostarrek ez zuten inolako konpentsaziorik jaso; gosez eta gaixotasunen ondorioz hil ziren asko, beste asko, sorterrira zuten paradisura ezin itzulita, herimenez, suizidatu egin ziren. Egun, 8.000 txagostar bizi dira Maurizio, txirotasun gorriengan, beren sorterrira ezin itzulita, euren etxea “terrorismoaren aurkako gerra” globalean base militarrik nabarmenena bilakatu dela ikusiz.


Bai munduko petrolio esportagarriaren bi herenak di-

tuen Ekialde Hurbilaren garrantzia estrategikoaren ondorioz bai Gerra Hotzean Sobietar Batasunari aurre egiteko abiatutako itsas armada hedatzeko estrategiaren ondorioz, Diego Garcia uharteko base militarra ezinbesteko bilakatu da AEBentzat. Bertatik bonbardatu dituzte Irak, Afganistan eta abarrak, bertan atxiki dituzte preso CIAk mundu osoan klandestinoki ehizatutako “susmagarri islamista” asko eta asko. Gaur egun, arma nuklearrekin aritzen diren hegazkinen baseaz eta 30 gerraontzi atrakatzeko portuaz gain, espiontzarako satelite-basea eta zabortezi nuklear bat ere badira bertan.

NORK NAHI DU KOLONIA IZAN?

Britainiarrek diote Txagos soil-soilik defentsa asmoetarako erabiltzen dela. Errealitatea, baina, oso bestelakoa da. Txagostarrek sarri eraman dute beren egoera auzitegiatar. 2000. urtean Britainia Handiko Auzitegi Gorenak itzulerrako beren eskubidea aitortu zuen, baina, Gobernuak, monarkiaren eskumen arkaiko batzuk erabiliz, hutsean utzi zuen erabakia. 2007. urtean erabaki hori bertan behera utzi zuen Auzitegi Gorenak, baina Gobernuak atzera bota zuen erabaki hori ere inork aukeratzen ez dituen Lorden Ganbera baliatuta. Azkenik, Nazio Batuen Erakundera iritsi zen txagostarren kasua, eta, ekainean, 94 herrialderen babesarekin (15 herrialdek bozkatu zuten aurka), auzia Nazioarteko Justizia Auzitegira bideratzea erabaki zen, Hagan egoitza duen Nazio Batuen Auzitegi Gorenera.

Joan den astean 22 herrialdetako ordezkariak osatzen duten epaimahaiak aztertu



Ezkerreko orrialdean, goian, Txagosko uharte handiena den Diego Garcian AEBek duten base militarra, eta, behean, bonbaketari nuklear bat bertan aire hartzen. Goiko argazkian, txagostarrek Nazioarteko Justizia Auzitegiaren aurrean protestan.
GAUR8

zuen auzia, historia kolonial latz hau, txagostarrek sorterrira itzultzeko duten eskubidearen aldeko eskaera kolektiboa. Afrikako eta Asiako herrialdeek, tartean Indiak, bat egiten dute txagostarren eskaerarekin. Eta, paradoxikoki, Brexitarren osteko ironia, Europako herrialde handiak ere (Frantzia, Alemania eta Italia) ez dira britainiarrekin lerrokatu.

Auzitegiaren epaia loteslea ez den arren, esanahi moral, politiko eta diplomatiko handia du. Zehazki, bi gairen inguru-

ruan espero da epaia. Lehena, ea Maurizioren deskolonizazioa legalki egin zen, hau da, Nazio Batuen 1954. ebazpena errespetatu zen edo ez –independentziaren atarian zeuden kolonien lurraldea ezin zitekeela hautsi dio–. Bigarrena, ea Mauriziok herritarrok beren jatorrizko lurraldera eramateko eskubidea duen edo ez.

Ez dago munduan kolonia izatea desiratzeko herririk. Hipotesi soilak, hotzikara sortzen du, sentimenduak suzten ditu. Eta kurioa da au-

zia: Britainia Handian bertan asko dira, berriki Boris Johnson Kanpo Harremanetarako ministro ohiak bere dimisio gutunean esan bezala, Brexit gogor bat gabe, Britainia Handia «Europar Batasuneko kolonia» bilaka daitekeela diotenak. Kurioa, bai: Britainiar Handiak ez du kolonia izan nahi, baina Maurizioren kolonizatzaile izan nahi du, txagostarrek su txikian historia-tik ezabatzea.

Britainia Handiak proposatu berri du «oinordetza bisitak» ordaintzea, hau da, txagostarrei sorterrira itzultzeko eskubide mugatua aitortzea, jaio ziren etxeetara ordu batzuetako bisitak egitea baimentzea. Txagostarrek, baina, argi dute: autodeterminazio eskubidea ez da “herentzia” auzi bat. Ozen diote jada ez gaudela XIX. mende amaierako edo XX. mende hasierako Afrikan. Ez. 2018ko irailean gaude

Garaiko kablegramek argi diote: «Txoriekin batera, jatorri iluneko ‘tarzanak’ eta ‘Man Friday’-ak ere [Robinson Crusoearen zerbitzari indigena gogoan] kanporatu behar izan ditugu»

Txagostarrentzat autodeterminazio eskubidea ez da «herentzia» auzi bat. Ozen diote jada ez gaudela XIX. mende amaierako edo XX. mende hasierako Afrikan. Ez. 2018ko irailean gaude



Ander Gortazar Balerdi
Arkitektoa

Kuartelak

X. mendearen amaiera zen eta espazioko harri pusketa erraldoi batek gizateria txikitu zuen ia. Bi bider, gainera. Hala irudikatu zuten bederen “Armageddon” eta “Deep Impact” filmek, bi hilabeteko epean, 1998ko udara partean. “Armageddon” izan zen estreinatzen lehena, Michael Bayren zuzendaritzapean, eta aste gutxi batzuk geroago iritsi zen Mimi Lederren “Deep Impact”, produkzioa dezentez lehenago hasi bazen ere. Estudioen arteko espioitza azaltzeko erabiltzen da oraindik ere kasu hau; ideia berarekin zinemetara nor lehenago iritsiko, hor zegoen lehia.

“Armageddon”-en Bruce Willisek suntsipenetik libratu bazuen mundua, abuztuaren 31n Ernesto Gasco Donostiako alkateordearen txanda izan zen. Loiolako Kuartelaren inguruko balizko negoziazio bati begira, azterketa tekniko eskatu zion Hirigintza Sailari, Hiria Antolatze Plan Orokorrak dioena baino etxebizitza gehiago eraikitzeko aukera egon dadin kuartelaren orubean. Alegia, eraikigarritasun handiagoa Loiolatik ospa egitearen ordainetan.

Kuartelarena noizbehinka joan eta etortzen den gaia da Donostiako udal politikan, baina ez nuen oso ondo ulertu momentua, harik eta biharamunean Eneko Goia alkateak esan zuen arte Loiolako kuartela Zubietara lekualdatzea proposatuko ziola Donostiak Espainiari. 1998ko udaran bi

asteroide-film nola, gai berari buruzko bi zunda-globo jaso genituen guk oso denbora gutxian.

Ezagutzen ez duenarentzat, Loiolako kuartel militarra Donostiari gelditzen zaion orube lau bakarrenetarikoa da. Uru-mea ibaiko meandro batean kokatua dago, Euskotrenen eta Renferen aldirien geltoki banatik gertu, garai batean hiritik at eta gaur egun hirian bertan dagoen leku preziatu batean. Hirigintzaren eta lurralde-antolaketaren ikuspuntutik, metro karratu horiek estrategikoak dira.

Susmoa dut, baina, inork ez dakiela oso ongi zer egin bertan. Duela hilabete batzuk (lurra jo ez zuen) asteroide baten tamaina futbol-zelaiaren sistema metrikoa erabiliz azaldu ziguten; orain, aldiz, etxebizitza kopurua erabiltzen dute hirigintza-proiektu kalitatearen erakusgarri bakar. Kasu hone-tan –kalkulua egin dut–, 9 hektarea eta, Gascoren arabera, 1.600 etxebizitza dira, alegia, ia 13 futbol-zelai eta 127 etxebizitza futbol-zelaiko. Baina ez da nahikoa. Alberto Moyano kazetariak «ezerezaren arkitektura» esan zion aurrekoan kuartelaren ondo-ondoan, ibaiaren beste aldean, egiten ari diren Txomin Enea berriko eraikinei. Ados. Nik mamia botatzen dut faltan, ideia bat, gidalerro batzuk kuartelaren ordezkotako auzoa ez dadin bilakatu autoaren inguruan diseinatutako enegarren lotarako auzoa, hainbat etxebizitza futbol-zelai batzuen tamaina duen lursailean. Ezerezaren arkitektura ezerezaren hirigintzan. •



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Plastiko beltza, zisne beltza

Bazirudien iraultza feminista geldiezina zela, gerra kultural zaharrak gogoan, luzera begira irabazten ari zirela, horren ebidentzia dezente bazirela. Euskal Herrian ikusi ditugu Martxoaren 8ko greba ikusgarria, “*La Manada* auziko” epaiaren kontrako matxinada, eraso sexisten aurreko oldarraldia, neska gazte mordoaren politizazioa... Arrakasta handiak edonondik begiratuta ere. Garaipena, baina, ez da sekula leuna, erraza. Gerra kulturaletan ez da betiko irabazten, garaipenak ez dira inoiz garaipen oso.

Hondarribiko alardean gertatu berri dena dugu horren adibide argi. Plastiko beltzen atzean gordeta, autoritate politiko eta polizialen babesarekin, Jaizkibel konpainiako emakume ausartei gorrotoz beteta hain era biolentoan eraso dieten hainbeste neskatxa gazte ikusteak uste asko jarri ditu hankaz gora. Herri familiar honek, izan Hondarribia ala Euskal Herria, atzekoz aurrerakoa dirudielako herritar askoren begietara.

Niretzat, gerra kultural edo *kulturkampf* bateko bataila da Hondarribikoa. Iraganeko denbora baten aldeko dei nostalgikoa ikusten dut hor nonbait. Autoritatea eta tradizioa errespetatzen zituen herri ordenatu

eta diziplinatua berrezartzeko bultzada, “bertakoak” direla esateko eskubidea dutela uste duten etorkin eta feminista “kanpotar” eta “marjinalek” mehatxatutako autoritatea eta tradizioa. Ez du axola jende askorentzat plastiko beltzaren atzeko neskatxak lotsagabe, baldar, arduragabe eta guztiz krudel agertzea, baldin eta haien jarraitzaileentzat jator-jatorrak, mozorrorik gabe egia esaten dutenak badira, politikoki zuzenak izatearen diktadurari men egiten ez dioten ausartak.

Gerra kulturaletan ez da politikaren inguruan eztabaida seriorik. Gatazka tribal handi-handi bilakatzen dira; hala, borroka politikoak alde bakoitzak bere nagusitasun morala ezartzeko erabiltzen diren botere batailak dira. Antagonista tribalek beren paperak mo-

du erritualistan jokatzen dituzte. Besteek beti politizatzen dute tragedia. Ez dira neurriak hartzen, ez dira legeak sortzen, denborak normaltasun bat ekarriko duela uste da, eta, azkenean, den-dena ustel. Ahoa garbitu eta datorren urtean trago berdina hartzera. Iraganeko gerra kulturalak sexualitatearen, erlijioaren edo familiaren inguruan borrokatu ziren. Orain bataila berriak ari dira agertzen. Larritasun ekonomikoak eta klase erreminak gerrotan ere azaleratu dira, are amorratuagoak, tribalagoak, fundamentalistagoak bilakatu. Txakurak txakurra jateraino.

Hondarribikoa bezalako berriak tentagarri dira komunikabideentzat. Sentsazionalista, izugarri, eskandaluzko. Ohizkanpokoak, baina, ez ohi da beso luzekoa. Horregatik ez diegu jaramonik egiten gertakari askori ezinezkoa zirudiena gertatu arte. Zisne beltzak gure muturren aurrean paratu arte. Arriskua arriskuaren gainean pilatzen joan arren, apurka-apurka, egunero-

Horrelako berriak obsesio dira. Adikzio. Buruarentzat, azukrea gorputzarentzat bezalakoak. Egunekeo gaiak kontatzen dira, ez egunerokoak. Eguraldia, ez klima

egunero... hori ez da notizia. Gertatzen ari zena ez da notizia, gertatu dena baizik. Eta gertatutakoak odola isurtzen badu, askoz hobe. Lerroburu da. Berriki gertatutakoak obsesio dira. Adikzio. Egunekeo gaiak kontatzen dira, ez egunerokoak. Eguraldia, ez klima. Gero, jakina, betiko galdera dator: Hondarribikoa, edo beste hura, nola ez genuen etortzen ikusi? Horrelako berriak, buruarentzat, azukrea gorputzarentzat bezalakoak dira. Eta ondorioak, politikoak: beste jendearekiko beldurti, etorkizunarekiko eszeptiko, datorrena aldatzeko gure ahalmenekiko ziniko bihurtzen gara. Gure aurreiritzi egoskorrenak, beldur handienak baieztatu egiten dira, gu, ezkor, mesfidati, are zoritxarreko, eginez. •

INDARKERIA MATXISTA

Defendatzeko erreminta teknikoak eta psikologikoak emakumearen eskura

Beldurrari aurre egiten laguntzeko proposamen bat da, espazio publikoei uko egin behar ez izateko eta indefentsio sentipena segurtasun eta sendotasun bihurtzen laguntzeko. Halaxe zehazten du emakumeek emakumeentzat egin duten gidak sarrerakoan.

“En femenino. Autodefensa científica” izeneko gida taekwondo eta hapkido arte martzialetan aritzen diren emakumezkoek osatu dute. Ana Agundez Basterra da egilea, arte martzialetan puntako aditua eta autodefensa ikastarotan irakaslea. Argitalpena osatzeko, baina, beste emaku-

me askoren laguntza izan du, guztiak arte martzialen munduan aritzen direnak.

«Federatuak gauden eta defentsa pertsonaleko teknikak ondo ezagutzen ditugun emakumeek egin dugu. Hain justu,


 **JENDARTEA** / Amagoia Mujika Telleria

Arte martzialetan eskarmentu handia duten emakumeek osatu dute «En femenino. Autodefensa científica» izeneko gida. Emakumeek emakumeentzat egina, defentsa pertsonaleko teknikak eta bestelako tresna psikologikoak eskaintzen ditu, eraso matxista baten aurrean biktimak erremintak izan ditzan.

Beheko irudian, Miren Bezi, Ana Agundez eta Rakhel Gutierrez, arte martzialetan adituak eta arituak eta gida osatzen jardun dutenak.
Marisol RAMIREZ | FOKU

defentsa pertsonal fisikoaren inguruan emakumeek egindako lehen gida da. Ezaugarri funtsezkoa da guretzat; teknikoki alderdi garrantzitsua delako. Izan ere, esaten da arte martzialak gizonei lotuak

egon direla eta hori ez da egia. Arte martzialetan aritzen garen emakume kirolari asko eta asko gaude. Bai taekwondoan bai hapkidoan –arte martzialen funtsa nolabait– eta baita beste modalitate batzuetan ere kirol emaitza oso onak lortu dituzten emakumeak daude. Gida honetan arte martzialetan adituak eta arituak garen emakumeek parte hartu dugu eta defentsa pertsonaleko zenbait teknika moldatu egin ditugu. Guk urte morderoa daragugu arte martzialetan eta urteotan guztiotan ikusi dugu gure gorpuzkeragatik –ez emakumeak izateagatik, gorpuzke- ra txikiagoa duten gizonak ere badiarelako–, teknika batzuk beste batzuk baino hobe men-



deratzen ditugula. Hori da liburuaren muinetako bat. Izan ere, liburua ez dago arte martzialetan aritzen direnei zuzenduta, emakumeei zuzenduta baizik; bai arte martzialetan aritzen diren emakumeei eta baita aritzen ez direnei ere».

OINARRI ZIENTIFIKOA

Behar batetik, errealitate bate-tik sortu da gida. Indarkeria matxistaren kontra egiteko beharretik. «Guk ezagutza zientifikoa daukagu, arte martzialek milaka urte dituzte-eta. Gainera, kontrastatuta daude eta oinarri fisiko baten gainean egiten dira. Teknikak ez badituzu ondo erabiltzen, ez badituzu zuzen burutzen, ez dute ondoriorik. Eta teknika horien baitan aukeraketa bat egin dugu; emakumeek teknikoki ondoen burutzen ditugun proiektzioak aukeratu ditugu. Bestetik, zientifikoa da eta hori nabarmendu beharra dago. Proposatzen ditugun teknika guztiek oinarri zientifikoa daukate, ez dira burutazioak. Fisikatik, neurologiatik eta beste alor askotatik egingako teknikak dira. Hemen ez da ohikoa arte martzialak eta medikuntza lotzea eta elkarrekin ikertzea, baina arte martzialen jatorrizko herrialdeetan bai. Korean, adibidez, giza gorputza ikasten dutenean presio puntuak ikasten dituzte, zaugarriak diren puntuak, neuroerzeptoreak... horrek guztiak lotura zuzena du akupunturarekin. Izan ere, sendatzeko balio duten puntuak, mina egiteko ere balio dute. Gauza hauek guztiak ikasteko denbora behar da eta jarraipena. Hori guztia ez da ordu pare bateko tailer batean ondo jasotzen», zehaztu du Agundezek.

Gidaren abiapuntuan duela bi urte martxan jarritako eki-



men bat dago: Red Marcial-Punto Lila izeneko taldea. Arte martzialetan profesionalak diren gizon-emakumeek sortu zuten talde hori eta kalitatezko irakaskuntza ofiziala eskaintzea du helburu nagusia, eraso matxista baten aurrean berehalako erantzun bat ematen irakastea. Emakume taldeei zuzendutako zerbitzua da eta doakoa, irabazi asmorik gabekoa. Udaletatik, kolektibo feministetatik, gobernuz kanpoko erakundeetatik, irabazi asmorik gabeko elkarteetatik eta beste jasotzen dituzte ikastaroen eskaerak. Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleek ere aukeran dituzte ikastarook, ikasketa kredituen truke. Hartara, gidak, gutxi edo gehiago, ikastaro horietan eskaintzen dituzten teknikak biltzen ditu.

«ZURE BURUA DEFENDA DEZAKEZU»

Ana Agundezek hitzetan, lehen urratsa, garrantzitsuena, emakume batek bere burua

Autodefentsarako gidak zenbait teknika zehaztasunez azaltzen ditu. Guztiek oinarri zientifikoa dute eta emakumeek teknikoki ondoen egiten dituztenak aukeratu dituzte egileek.
GAUR8

defendatu dezakeela sinistea da, kontzientzia hori hartzea.

«Hogeitaz urte daramagu emakumeei autodefentsa pertsonaleko klaseak ematen. Lehen mezua garbia izaten da: zuk zure burua defendatu dezakezu teknika batzuk ikasiz gero. Hortik aurrera, gidak pistak ematen ditu, zenbait teknika emakumeen eskura jarritz, eraso baten aurrean tresna bat izan dezaten».

Taekwondoak eta hapkidoak eskaintzen dituzten teknika desberdinen aukera zabala ja-

sotzen du gidak, eraso fisikoa jasan duenak defendatzeko tresna batzuk izan ditzan. «Ezagutza kontua da. Baita zure burua ezagutzeko bide bat ere. Eraso baten aurrean, bel-durak zer eragin izan dezakeen, arnasa nola alda daitekeen, gorputzak nola erantzun deza-keen... hori guztia identifika-tzen laguntzeko tresnak ere eskaintzen ditu. Eraso gerta-tuz gero, emakume hori ez da-din blokeatuta geratu».

Rakhel Gutierrez Campesino arte martzialetan aditua eta

«Gida honetan arte martzialetan adituak eta arituak garen emakumeek parte hartu dugu eta defentsa pertsonaleko zenbait teknika moldatu egin ditugu»

«Urteotan ikusi dugu gure gorpuzkeragatik –ez emakumeak izateagatik, gorpuzkera txikiagoa duten gizonak ere badirelako–, teknika batzuk beste batzuk baino hobe menderatzen ditugula»

defentsa pertsonaleko irakaslea da. Bere esanean, «akaso egun zabalduago edo sozializatuago dago emakume batek defendatzeko aukera duela. Aldiz, ez dago hain barneratuta defendatzen ikasteko denbora eskaini behar zaiola ikasketa horri, ezagutza horri».

Agundezek segitu dio. «Guk, emakumeok, eskubide osoa daukagu kalean lasai ibiltzeko, espazio guztietan ibiltzeko, errespetatuak izateko... baina hala ez denean, zer egiten dugu? Zer egin dezakegu? Ni neu duela 30 urte hasi nintzen arte martzialetan, hain justu ere, mugimendu feministaren bueltan. Kalea gurea dela aldarrikatzen genuen, baina sentitzen nuen nik zerbait jarri behar nuela nire aldetik. Eraso baten aurrean tresnak izan nahi nituen eskura».

Emakumeak defendatzeko dituen aukeren gaineko kontzientzia gero eta indartsuagoa dela uste dute gidaren bul-tzatzaileek. «Guk hamabi bat urte daramagu Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean defentsa pertsonaleko ikastaroak ematen eta talde handiak etortzen dira, hogeita hamar lagunetik gorakoak. Emakume gazteen aldetik, gero eta barneratuago dago defendatzeko eskubidea eta gaitasuna dutela».

Ikastaroak egun batekoak dira, bizpahiru ordukoak. «Horri esker mundu hau ezagutu dezakezu, lehen gerturatze bat egin. Baina beharrezkoa ikusten dugu gero jarraitzea, indartzea. Ni emakume feminista naiz eta lan asko egin behar izan dut –eta egin behar izaten dut oraindik– lanean, etxean, kalean gizarte parekide baten alde. Ba defentsa pertsonalarekin, berdin. Ikastaro batean mundu hori ezagutu dezake-



zu, akaso imajinatu ere egiten ez zenuena, baina gero praktikatzen jarraitu behar da», iritzi dio Agundezek.

«PAUSOA ALDATZEN DIZU»

Zure burua defendatzen erakusteaz gain, mundu horrek beste gauza asko ematen di-tuela nabarmendu dute. Miren Josune Bezi eskuin hapkidoan federatuta dago. «Nire burua defendatuko dut. Hori pentsatzea da, zalantzarik gabe, indartzeko lehendabiziko urratsa, ahalduntzeko pausoa. Zure burua defendatu dezakezula jakiteak pausoa aldatzen dizu kalean zoazenean. Izugarria da. Segurtasuna ematen dizu eta zure jarrera aldatzen du erabat».

Jarrera horrek erasotzailea tokiz kanpo utz dezake, gaine-

ra. «Erasotzaileak egiten duen lehen gauza erasotakoa gutxiestea da. Berak ez du espero erantzun bat izango duenik eta segur aski horregatik egiten dio eraso, gainetik dagoela sentitzen duelako. Horregatik, erantzunik espero ez duelako, erantzuna izaten duenean joko-koz kanpo gera daiteke. Gerta daiteke eraso hori geratzea; eta, jarraitzen badu, badituzu beste tresna batzuk. Autodefentsak segurtasuna ematen dizu, autoestimua, ezagutza... eta, batez ere, zerbait egiteko gai zarela erakusten dizu», jarraitu du Bezik.

Ana Agundezek ere garbi dauka. «Defentsa fisikoa ezagutzen dugun emakumeek daukagun arma garrantzitsue-na honakoa da: erasotzaileak ez du inondik inora espero ho-

Eraso baten aurrean erantzuteko teknikak ez ezik, estresaren edo beldurraren aurrean gorputzak nola erantzuten duen ezagutzeko pistak ere jasotzen ditu gidak. GAUR8

rrela defendatuko garenik. Hori da gure indargune handiena. Guk, gainera, gizonekin entrenatzen dugu eta horri esker badakigu nola erantzuten duten, badakigu gorputzera handiagoak nola ahuldu, zein diren puntu klabeak... Horiek dira gure arma nagusiak: ezustekoa, defentsa eta ezagutza».

BELDURRAREN EZAGUTZA

Ezagutza eta beldurra elkarri lotuta daude. «Oso ikertuta dago estresaren aurrean nola jokatzeko duen gorputzak; nola entzumena eta beste gaitasun kognitiboak galtzen joaten garen... Baina gertatu dakigukeen hori gero eta hobeto ezagutu, gero eta aukera gehiago ditugu ondo erantzuteko. Estres egoera batean aurrean zure gorputzak nola erantzun dezakeen ez duzunean ezagutzen, blokeatzeko arrisku handia dago. Adrenalinak gerarazi egin zaitzake. Aldiz, zure gorputzak nola erantzun dezakeen jakinez gero, ez zara hainbeste beldurtzen eta egoera kontrolatzeko aukera gehiago duzu», nabarmendu du Rakhel Gutierrezek.

Hori ere jasotzen du liburuak. Estres egoera batean gorputzak nola erantzuten duen: antsietatea, ikara, dardara, pulstazioak azkartzea, entzumena galtzea, ikusmena ahultzea, garrasi egiteko ezintasuna... «Eraso baten aurrean, hori guztia berdin-berdin gerta da-kizuke. Baina hori gertatu daitekeela jakitea, egoera hori ezagutzea, abantaila bat da», nabarmendu du Gutierrezek.

Gidak ezagutza eskaintzen du, pistak. Ez bakarrik alderdi teknikoak bakarrik, baita alderdi psikologikoa ere. «Behin liburua irakurrita erabat seguru sentituko naiz kalean? Tira, hori asko esatea da. Defentsa-

ko teknikak barneratzeko praktikatu egin behar da. Baina egia da liburuak leiho bat ireki dezakeela», iritzi dio Gutierrezek.

IDEALA, BEHAR EZ IZATEA

Autodefentsarekin segitu beharra, defendatzen ikasten segitu beharra, etsigarria ere gerta daiteke mundua hari parekideagoz josi nahi duenaren begietara. Izan ere, berriro emakumearen gainera erortzen da pisua. Rakhel Gutierrezen iritziz, «ideala litzateke autodefentsarik behar ez izatea kalean lasai eta libre ibiltzeko. Zalantzarik gabe. Baina errealitatea bestelakoa da. Gaur egun, zoritxarrez, beharrezkoa da oraindik. Nahiago nuke arte martzialak zaletasun hutsagatik bakarrik egiten diren eguna iritsiko balitz. Nik hogeita bost urte daramatzat honetan eta gorputzak baimena ematen didan bitartean, segitzeko asmoa daukat. Baina gaur-

gaurkoz, nahiz eta erasorik ez gertatzeko lan egiten dugun, oraindik gertatu egiten dira».

Ana Agundezek ere garrantzitsu ikusten du defentsarako tresnak eskuratzea. «Defentsa pertsonaleko teknikak jakiteak beste ikuspuntu bat ematen dizu. Begi gehiago dituzu egoerak ikusteko eta aurreikusteko. Adibidez, ni egunero goizeko sei eta erdietan lanera joaten naiz, oinez, beti toki berdinetik. Baina urteko egun batzuetan desberdin joaten naiz, jende gehiago dabilelako kalean eta badakidalako arrisku gehiago daudela. Ez dudala inoiz beldurrez joan behar? Ados. Ez dudala inoiz adi joan beharra sentitu behar? Ados. Aldatu behar dutenak troglodita erasotzaileak direla? Ados. Baina nik nire tresnak ditut eskura, erasotzaileak egotea ezin baitut ekidin».

Miren Bezik antzeko ikusten du. «Bizitzaren ikuspuntu praktikoa bati erantzuten dio.

2016. urteaz geroztik, arte martziala aritzen den profesional talde batek defentsa pertsonaleko ikastaroak eskaintzen ditu Red Marcial-Punto Lila izeneko ekimenaren baitan. Behean, ikastaro horietako batean parte hartu duen emakume taldea. GAUR8

«Nire burua defendatuko dut. Hori pentsatzea da, zalantzarik gabe, indartzeko lehen urratsa. Zure burua defendatu dezakezula jakiteak pausoa aldatzen dizu kalean zoazenean»

«Gimnasioan askotan aritzen gara gizonen aurka eta gure muga jakitun gara. Era berean, badakigu zenbait teknikarekin gorpuzkera handiagoko hori ere mendera dezakegula»

Izaerarekin lotuta dago nire ustez. Nik, adibidez, ez dut eraso larririk jasan –emakume guztiek sufritu ditugun egoera desatseginak gertatu bazaizkit ere–, baina oso pertsona praktikoa naiz eta ikasteko beharra daukat. Eraso bat gertatuz gero, hori kudeatzeko tresnak izateko beharra sentitzen dut. Arazoari, irtenbidea. Hori da nire ikuspuntua. Ezin naiz modu pasiboan geratu, zer gertatuko zain».

Gainera, defentsa pertsonaleko jakintza eskuratzea pre-

bentiboa ere izan daitekeela uste dute. «Nik uste dut baietz, prebentiboa ere badela. Defentsa pertsonaleko teknikak eza gutzen dituzunean, beste gorputz jarrera batekin joaten zara kaletik, zure gorputzak beste gauza batzuk kontatzen ditu. Gauez, adibidez, ohikoa da egoera deserosoagoak gertatzea. Egoera horietan zure gorputzak segurtasuna transmititzen du, beste pausaje bat. Ez diozu inori erronkarik egiten, badakizulako zer arrisku dagoen eta nola amai-



tu daitekeen egoera. Baina segurtasuna transmititzen duzu eta erasotzaileak, normalean, hori sumatzen du. Zu zure tokian eta ni nirean. Nahiz eta ikasi ditudan teknikak, zorionez, oraingoz ez ditudan inoiz erabili behar izan, teknika horiek jakite hutsak indartsuagoa eta seguruagoa egin nau, eta, era batean, babestu egiten nau», nabarmendu du Bezik.

Rakhel Gutierrezek bide beretik segitu du hizketan. «Defentsa teknika horiek ezagutzeak eta erabiltzen jakiteak ez du esan nahi erabili egin behar dituzunik. Badakizu, gainera, horiek erabiliz gero zer-nolako egoerak suerta daitezkeen. Baina bizitzari aurre egiteko zure modua beste bat izango da eta segurtasun horrek arazo batzuk ekidin ditzake».

«DEFENDA NAITEKE»

«Frogatuta dago, horren inguruko ikerketak egin direlako, erasotzaileak bere biktimatik aukeratzeko orduan gorputz hizkerak bere parteak daukala», gaineratu du Ana Agundezek. Azkarregi edo mantsoegi doanak beldurra iradoki dezake; telefonoari begira doanak edo aurikularrak belarritan dituenak arreta falta... «Ez da gure asmoa, ezta gutxiago ere, emakume batek kaletik libre eta nahi duen jarreraren joateko daukan askatasuna murriztea. Baina jakina da erasotzaileak maiz animalia harrapakarien antzera jokatzen duela bere biktimatik aukeratzeko; ahula iruditzen zaiona edo egoera zaurgarrian dagoena aukeratzeko duela, alegia», zehazten du gidak.

Zalantzarik gabe emakumeen gorputz hizkeran pisu handia dauka hezkuntzak, kulturak, gorpuzkera txikiagoaren kontzientziak, indarraren

etengabeko konparazioak... «Gure mugen jakitun gara. Gimnasioan askotan aritzen gara gizonen aurka eta badakigu zeintzuk diren gure mugak. Baina, era berean, badakigu zenbait teknika erabiliz gero gorpuzkera handiagoko hori ere mendera dezakegula. Gure mugak eta indarguneak ondo ezagutzen ditugu, praktikan jarri ditugulako», nabarmendu du Bezik.

Rakhel Gutierrez ados dago. «Indar handiagoko dauka, baina defenda naiteke. Hori da barneratu behar dugun ideia. Eta ez urte askoan helarazi digutena: indar gehiago daukanez, ezingo zara defendatu. Ez da egia. Horri buelta eman behar zaio».

Liburua autoedizio bat da, erabat borondatez egindakoa eta ez dago salgai ohiko tokietan. Egileekin harremanetan jarri beharra dago eskuratzeko (hapkidoeh@gmail.com).



ERAKUTSI AL DIGUTE DEFENDATZEN?

Emakumeari erakutsi al diote defendatzen? Ba al daki borrokan? Galdera garrantzitsuak dira. Autodefentsarako gidak kapitulu garrantzitsu bat eskaintzen dio lurrari, eraso jasan duen emakumea maiz lurrera botatzen duelako erasotzaileak eta bertatik defendatu behar izaten duelako.

Ana Agundezek kontatzen duena oso esanguratsua da. «Ikastaro mordoa eman dugu guk eta beti gauza bera gertatzen zait. Emakumeei lurlean etzateko eskatzen diegunean, kasik %100 modu erabat sumisoan etzaten dira, besoak eta hankak zabalik, eraso bat jasango duenaren pasibotasun etsigarritik. Harrigarria da. Lurrean etzatean, hankak eta besoak tolestu behar dira eta burua altxatu, defendatzeko jarreraren jarri behar da, alertan, etsitu gabe. Jarrera horietan oso garbi geratzen da emakumea ez dagoela borrokara ohituta, ez dagoela bere burua defendatzera ohituta... Ez zaio natural ateratzen, bere burua behartu egin behar du. Hori erabat kulturala da eta irauli egin behar da».

Gidak jarrera aldaketa horretan laguntzea du helburu nagusi eta, horretarako, baliabide fisikoak ez ezik, psikologikoak eta emozionalak ere eskaintzen ditu. «Ez dira bakarrik teknika fisikoak. Beste gauza asko ematen dizute defentsa pertsonalerako teknikak: nola kokatzen zaren, nola ibiltzen zaren, nola ikusten dituzun gauzak... Eta horrez guztiaz gain, teknika zenbait ematen dizkizu, noizbait behar izanez gero, erabiltzeko».

Miren Bezi duela ez hainbeste gerturatu zen arte martzialen mundura eta bere baitan ari da aldaketa sentitzen. «Jakini minez gerturatu nintzen eta oso interesgarria iruditu zitzaidan. Defentsa teknikez aparte, beste gauza asko ere ikasten ari naiz: seguruago sentitzea, indartuta sentitzea, zure tokian sentitzea... Psikologikoa da erabat. Eta parte psikologikoa fisikoa bezain garrantzitsua eta pisutsua da».

Gidaren egileek garbi daukate: arte martzialen munduak erreminta asko eskaintzen dizkio emakumeari.



Alai
ZUBIMENDI

iRRITZIA:



MUGIMENDU ANTIESPEZISTA

NOR Euskal Herria talde sortu berriak justizia sozialaren aldeko borroketan kokatu nahi du antiespezismoa

 **JENDARTEA** / Amagoia Mujika Telleria

«Gizaki gisa ditugun pribilegioez jabetzea» eta horien ondorioz gizakien eta gizaki ez diren animalien arteko harremanak «botere harremanak» direla barneratzea. Horixe da mugimendu antiespezistaren borrokaren norabide nagusia. NOR kolektiboa sortu berri da, indarrak batu eta gaia lehen lerrora ekartzeko.

Duela aste gutxi sortu da NOR Euskal Herria Antiespezista, animalien askapenerako lan egiteko asmoz. «Indarrak batu nahi ditugu gainerako taldeekin, espeziemoaren aurkako borroka beste mugimendu sozial eta politi-

koen esparruan kokatzeko. Antiespezismoa zapalkuntza ororen aurkako mugimendu gisa ulertzen dugu, eta, ondorioz, kolektibo feminista, antikapitalista eta euskaltzale bat gara», aurkeztu du bere burua kolektiboak. Egungo mugimendu antiespezista sendotzea eta dagoeneko borroka horretan ari direnak saretzea

Azaroan NOR kolektiboak Euskal Herriko talde antiespezistak manifestazio batera deituko ditu, Bilbon. Talde sortu berriak indarrak batu nahi ditu. Beheko irudian, aurreko protesta bat. NOR KOLEKTIBOA

ere helburu du, finean, «indarrak batzea».

Gainera, antiespezismoa justizia sozialaren aldeko mugimenduen artean kokatu nahi du kolektiboak. Beren hitzetan, «antiespezismoa jarra politiko bat da, eta, ondorioz, gure tokia gainerako zapalkuntzen aurka lanean ari diren taldeen artean dago, espeziemoaren aurkako borroka zapalkuntza ororen aurkako borroka baita».

GOGOETA PIZTEA

Antiespezismoa ulertzeko eta barneratzen hasteko, NOR kolektiboaren ustez, lehen urratsa gogoeta egitea da. «Beharrezkoa da, lehenik eta behin, gizaki gisa ditugun pribilegioez jabetzea. Pribilegio horien ondorioz, gizakion eta gizaki ez diren animalien arteko harremanak botere harremanak dira. Boterea gizakion esku dago, eta, ondorioz, beste animaliak menpeko bilakatzen ditugu, objektu, baliabide huts. Hori aldatu nahi dugu, eta gogoeta piztea da hori lortzeko lehendabiziko urratsa».

Kolektiboak emandako datuen arabera, munduan 70.000 milioi ugaztun eta hegazti hiltzen dituzte urtean. «Euskal Herria ez dago errealtate horretatik kanpo; milioika animalia hiltzen dituzte urtean. Baserrian edo haztegi handi eta itxietan jaiota ere, denek patu bera dute zain: hiltzea. Sistema espeziistak beste espezien gainean jartzen ditu gizakiak, eta horren ondorioz zapaltzen eta erabiltzen dira gizaki ez diren animaliak; horren ondorioz jartzen dira beste animalien oinarritzko interesak gizakien interesen azpitik, kasu guztietan. Bai eta naturan aske bizi direnean ere. Gizakiak hartzen du bere gain



MAIALEN SAGÜES

NOR EUSKAL HERRIA ANTIESPEZISTA KOLEKTIBOKO BOZERAMAILEA

«Gero eta jende gehiago dago animalien alde borrokatzeko prest»

Zergatik behar da NOR taldearen gisako kolektibo bat Euskal Herrian?

Beste hainbat kolektibo antiespezistatan militatzen ari nintzela, konturatu nintzen mugimenduak bazituela bete beharreko hutsuneak, eta banituela gogoia eta tresnak hutsune horiek betetzeko lan horretan hasteko. Labur esanda, NOR taldeak lau helburu ditu: gizartea kontzientziatzeko komunikazio tresna eraginkor bat izatea; mugimendu antiespezista indartsu eta koordinatu bat sortzea; euskal antiespezista guztiak batuko dituzten egitasmoak antolatzea; eta, azkenik, antiespezismoari buruzko euskarazko edukiak sortzea. Hori premiazkoa iruditzen zait.

Taldeak nabarmendu du animalien askapenerako mugimendua politikoa dela. Zer mezu helarazi nahi duzue?

Gizaki gisa ditugun pribilegioei buruzko hausnarketa bultzatu nahi dugu; bat egin behar dugu, borroka egin ahal izateko gizaki ez diren animaliak baztertzea eta zapaltzea bultzatzen gaituen sistema honen aurka.

Zer-nolako lana egin nahi duzue beste taldeekin?

Gure asmoa da gure kolektiboaren eta besteen arteko harremanak estutzea, mugimendu indartsu bat garatu ahal izateko. Gero eta jende gehiago dago Euskal Herrian animalien alde borrokatzeko prest, eta fenomeno horren bozgorailu izan nahi dugu. Gure kideen ekinaldiak zabaltu, elkar ezagutu eta sare handi bat sortu nahi dugu.

Zein da jarraitu nahi duzuen bidea?

Animalien askapenerako mugimenduak zilegi den norabide bakarra du: transbertsala behar du izan. Ezin du mugimendu bakartu bat izaten jarraitu; sistema zapaltzaileaz kontzienteago izan behar dugu, eta bat egin norbanako guztiak sufritzen dituzten zapalkuntzen aurkako borrokekin. Mugimenduak urrats asko egin behar ditu, oraindik ere, formakuntzaren bidean; belarria prest izan behar dugu feminismoak, arrazakeriaren aurkako borrokak, kapazitismoaren kontrakoak, LGTBI kolektiboak edo bestelako taldeek plazaratzen dituzten eskaerak jasotzeko.

naturan bizi diren animalien populazioen kontrola eta kudeaketa», nabarmendu dute aurkezpenean. Antiespezistek kritikatu dutenez, «baserrian, haztegietan edo naturan, beste espezieetako norbanakoak ez dira existitzen gizakientzat, eta haien interesen arabera baino ez dituzte kontuan hartzen beste espezie horiek».

Hartara, kezkarria iruditzen zaien errealitate horren berri emateko sortu dute kolektiboa. Era berean, «antiespezismoari buruzko euskarazko edukiak» sortzea ere badago NOR taldearen erronken zerrendan.

Taldea sortu berri da, baina hemendik urte bukaerara dagoeneko finkatuak ditu hainbat helmuga. «Urrian, urte eta erdiz egindako ikerketa lan bat plazaratuko dugu. Ikerketa horrek agerian uzten du gizaki ez diren beste animaliekin dugun botere harremanak gizakioi ematen digun pribilegioaren aurpegirik gordinena. Bestetik, azaroan, manifestazio batera deituko ditugu Euskal Herriko antiespezistak, Bilbora, beste animalien aldeko jarrera argia eta sendoa hartzeko. Antiespezismoaren garaia hasi da, eta kalean erakutsi nahi dugu animalien askapenaren aldeko mugimendua mugimendu politikoa dela».

«Beharrezkoa da, lehenik eta behin, gizaki gisa ditugun pribilegioez jabetzea. Horien ondorioz, gizakion eta gizaki ez diren animalien arteko harremanak botere harremanak dira»

«Antiespezismoaren garaia hasi da, eta kalean erakutsi nahi dugu animalien askapenaren aldeko mugimendua mugimendu politikoa dela»





Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

Ez sinistu pentsatzen duzun oro

Esaldi gogoangarria iruditu zitzaidan pasa den egunean sare sozialetan ikusi nuen: «Ez sinistu pentsatzen duzun oro». Maiz pentsamendua neutroa dela deritzogu eta pentsatzen duguna ondo pentsatuta dagoela uste dugu, arrazioa erabiltzean ari-keta estandar eta aseptiko bat egiten ariko bagina bezala. Errealitatea baina oso bestelakoa da, eta, hala, aurreko astean proposaturiko moduko asmakizun asko horretantxe oinarritzen dira: ez dugu ongi pentsatzen.

Pentsatzen dugunean ez sinisteko esanda, nola ez ohartarazi aurreko hila-betean proposaturiko problemen soluzioetan ere ez dela sinistu behar. Soluzioek, pentsamenduak bezala, bakarrak eta ziurak dirudite, baina ez


dira problema jakin baterako ebazpen jakin bat baino. Gainera, soluzioek pentsamendua eten egiten dute eta ez dira beraz batere interesgarriak, baina, egiari zor, batzuetan eskertu ere egiten dira. Pentsatzen jarraitu nahi duenak beraz ez dezala irakurtzen segi, eta besteontzat, honatx aurrekoan planteaturiko problemen soluzioak:

Erreka gurutzatzeko problemekin hasita, agerikoa da egitura antzekoa dutela biek. Ehun kilo onartzen dituen txalupan (T), A eta B ehun kilo pisatzen dutenak eta a eta b berrogeita hamar pisatzen dutenak izanik, honela egin beharko dute gurutzatzeko: $ABabT \rightarrow AB-abT \rightarrow ABaT-b \rightarrow Aa-BbT \rightarrow AabT-B \rightarrow A-BabT \rightarrow AaT-Bb \rightarrow a-ABbT \rightarrow abT-AB \rightarrow -ABabT$. Misiolari (m_1, m_2, m_3) eta kanibalen (k_1, k_2, k_3) kasuan berriz: $m_1m_2m_3k_1k_2k_3T \rightarrow m_1m_2k_1k_2-m_3k_3T$

$m_1m_2m_3k_1k_2T-k_3 \rightarrow m_1m_2m_3-k_1k_2k_3T \rightarrow m_1m_2m_3k_1T-k_2k_3 \rightarrow m_1k_1-m_2m_3k_2k_3T \rightarrow m_1m_2k_1k_2T-m_3k_3 \rightarrow k_1k_2-m_1m_2m_3k_3T \rightarrow k_1k_2k_3T-m_1m_2m_3 \rightarrow k_1-m_1m_2m_3k_2k_3T \rightarrow m_1k_1T-m_2m_3k_2k_3 \rightarrow -m_1m_2m_3k_1k_2k_3T$.

Egiazale eta gezurtiei egin beharreko galderei dagokienez, infernu eta zerura ematen duten ate bana dauden gelan, bietako edonori “zure kideak ate honetatik zerura joango naizela esango lida-ke?” galdetuta, erantzuna baiezkoa de-nean infernurako atea izango da, eta alderantziz. Egiaren eta Gezurraren herrien arteko bidegurutzetan den ezezagunari egin beharreko galdera eleganteagoa da oraindik: “nondik etorri zara zu?”. Eta seinalatzen duen bideak beti eramango du Egiaren herrira. Azkenik, problema “zailenari” dagokionez, fauno bi (gezurti eta egiazale) eta gizakiari (gezurra edo egia esaten ahal duena) galdera bi eginez gizakia identifikatzeko, honela jokatu behar dugu: lehen galderarekin hiruretatik faunoa zein den ziurtatu, eta, bigarren galdera berari pausatuz, gizakia identifikatu.

Hiru izakiak A, B eta C izanik, Ari galdetuko diogu: “zure kideen artean probableagoa al da Bk egia esatea?”. Erantzuna baiezkoa bada, hiru aukera daude: A fauno egiazalea da, B gizakia eta C fauno gezurtia; edo A fauno gezurtia da, B gizakia eta C fauno egiazalea; edo A gizakia da eta B eta C faunak. Hots, C faunoa dela badakigu. Alderantziz, Aren erantzuna ezezkoa izango balitz, B litzateke faunoa ziur. Demagun Ak baiezkoa eman digula; beraz, Cri pausatuko diogu bigarren galdera: “Beste faunoak esango luke A gizakia dela?”. Infernu eta zeruko ateen kasuan bezala, erantzuna baiezkoa bada, A ez da gizakia izango (B litzateke), eta, ezezkoa bada, A izango da gizakia. Lehen galderan Ak ezezkoa emango balu, modu analogoan jokatuko genuke bigarren galdera Bri pausatuz. •



Pentsatzen jarraitzeko problematxoa: zer gertatu da karratutxoarekin?

{ koaderno } Iker Barandiaran

Isiltasuna

Oporretan Japonian egon den lagun batek kontatu dit berretsi duela hango bizilagunen errespetu, edukazio eta zibismo muturrekoa. Eta, horrekin alderatuta, txanponaren beste aldea, ikaragarria dela japoniarren bakardaderako joera. Esaterako, taberna eta jatetxeetan ia guztia prestatuta dago bezeroak banaka egoteko. Jende ia-ia guztia bakarrik, inongo konpainia gabe, aritzen da edaten edo jaten bere sakelakoari begira. Era berean, han izan diren lagun batek baino gehiagok kontatu izan didate egunero milaka eta milaka pertsona mugitzen dituen metroan jende guzti-guztia joaten dela isilik, sakelakoari etengabe begira edo lotan. Ez da txintik entzuten ez metroan ezta kalean ere. Ikaragarria omen da, beldurgarria neurri batean. Globalizazioa aspaldi hedatu bazen ere, zein desberdinak garen haiekiko oraindik...

Bizimodu mota horretatik geografikoki eta jarrean erabat muturrean ezagutzen dut oraindik ere hemen, gurean, unean unekoa, begi aurrean duena soilik bizi duenik; sare sozialei egun osoan jaramonik egin ez eta komunean jarrita daudenean bakarrik ikuskatzen dituzte txutxu-mutxu edo informazio delakoak.

Komunez ari naizela, horiek bisitatzerakoan begi aurretik sakelakoa alendu dudana aldietako batean oroitutua naiz lantokiko komunean idatzita dagoela aspalditik bi pertsonen arteko elkarrizketa motza, eta berorrek politikatik eta umoretik, bietatik, dauka. Ez da gutxi.

Horietako lehenak GRAPO siglak idatzi zituen eta alboan igitai eta mailuaren irudi ezaguna. Hurrengoak, berriz, “grapa” hitza idatzi zuen, eta alboan, hain zuzen ere, grapa baten irudia marraztu zuen komunismoaren irudia estutu izan balu bezala. Gaur egun inor gutxi oroitzen da GRAPO Urriaren Leheneko Erresistentzia Talde Antifaxistez eta komunismoaz, nahiz eta lehen goen kasuan gutxi batzuek guztia eman zuten ezeren truke. Komuneko atean grabatutako erantzuna haieki-

ko errespetu falta ere izan zitekeen, baina ezin da ukatu egile hura irudimentsua eta estiloduna zela edo dela.

Pintaketa txiki horien motiboez bezala jende gutxik dauka gogoan luzaroan komunak sare sozial garrantzitsuak izan zirela. Gainera, gaur egungoetan bezalaxe, haietan ere zaborra zen nagusi, hau da, gustu eta estilo eskaseko mezuak eta biraoak. Hori esanda, baina, ezin uka komunak luzaroan izan direla benetako adierazpen libreko guneak; eta, ondorioz, baita eztabaidaguneak ere.

Beste inon plazaratzen ez ziren mezuak ageri ziren, gauzatzeko zuten erraztasunagatik, eta, ondorioz, irudika zenezakeen edozein mezu jarri ahal zitezkeelako. Horregatik, askotan, komuna kokatuta zegoen paisaia-ekin talka handia egiten zuten mezuok, hartzailearen-gandik erreakzioa lortzea zelako helburu nagusia. Alajaina, horiek ziren egileentzat meritu handiena zutenak: non eta hain justu aurkariaren edo kontrakoa

Estilo eskaseko mezuak eta biraoak gorabehera, ezin uka komunak luzaroan izan direla benetako adierazpen libreko guneak, baita eztabaidaguneak ere

prentsatzaren zuenaren “etxean” halakoak zabaltzeko ahal izatea. Esaera zaharrak dioten gisan guztiok joaten gara berdin komunera eta, hara!, han, gutxien espero duzun nean gutxien espero duzun mezua.

Errotulagailu edo labanaz egindako txio edo post haietan gaiak gaur egungo *trending topic*-en oso antzekoak ziren: independentzia, guardia zibila, monarkia, askatasuna, Eliza katolikoa, drogak...

Gurean *trending topic*, interesdun edo saltsa gehien ematen duten gaiak lehengoan antzekoak izan arren, egia da lehenengo pausoa kalera gutxiago irten eta barrura bizimodu gehiago egiten hastea izan zela; eta orain ere poliki-poliki bakardaderako joera gero eta handiagoa dugula. Isilik, baina, ez gara geratuko, ezta? •

«Gauzen eta prozesuen arteko harremanak aztertze-ko ahalmena ez da behar bezainbeste garatu»

Besteak beste, BC3 Basque Centre for Climate Change zentroko talde zientifikoko kide eta Ikerbasqueko ikerlaria da Unai Pascual Garcia de Azilu. Urte dezente eman ditu nazio-arteko ikerkuntzan, horietatik hamar Cambridgeko Unibertsitatean. Orain arte, «jokalari gisa», eta, orain, «entrenatzaile». Eskaini digun aukeraz baliatuta, IPBES gobernu arteko plataformak egingo duen “Bioaniztasunaren eta ekosistemen zerbitzuen balioen ebaluazioa” txostenaz hitz egin dugu.

Txosten horrek hiru urtean 150 adituk zientzialari gasteiz-tarraren zuzendaritzapean naturaren ekarpenen balioen gainean egingo dituzten ikerketak jasoko ditu. Hori bai, txostenaren nondik norakoak ez ezik, «erronka» potolo horri zergatik heldu dion ere azaldu digu, eta argi dago zergatien artean ez dagoela interes ekonomikoa, ez halakotzat ulertu ohi duguna behinik behin. Izan ere, hurrengo hiru urteetan bere egunero-ko lanaren parte handi bat egitasmo honetara zuzenduko badu ere, lan horregatik jasoko duen diru kopuru zehatza jakin dugu: «zero». Hala ere, pozik dago eta lan itzel bezain garrantzitsu hau ikerketan parte hartuko duten adituek, nazioarteko komunitate zientifikoak, egiten duten ekarpena dela dio.

IPBES plataforma NBek bultzatzen du, eta zu haren presidentekide izendatu zaituzte. IPBES bioaniztasunaren eta ekosistema-zerbitzuen inguruko gobernu arteko plataforma da. Apurka-apurka gero eta estatu gehiago atxiki zaizkio. Orain

130 dira. Agian zientzia arloan gobernu arteko plataformarik ezagunena IPCC Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldea da, hiruzpalau urtetik behin klima aldaketaren gainean dakigun guztiaren goi mailako dosierak argitaratzen ditue-na, ebidentzia zientifikoan oinarrituta. IPBES haren ahizpa da. Lan bertsua egiten dugu, baina gure ikerketak bioaniztasun edo naturaren ekarpenetan jartzen du arreta. Bien funtzio-namendua oso antzekoa da.

Diziplina anitzeko taldeak dira, ezta?

IPCCn milaka zientzialari daude klima aldaketaren gainean iker-tzen, zein bere alorretik, eta gauza bera IPBESen, baina natu-raren inguruan; filosofoak, eko-nomialariak, biologoak, antro-pologoak, historialariak... gara ikertzaileak. Jakina, alor horie-tan guztietan ikerketa pila bat egiten da mundu osoan, eta ba-tzuetan datuak kontrajarriak di-ra, zientzian gauzak ez baitira li-nealak. Eredu ezberdinak erabiltzen dira fenomeno bera aztertu ahal izateko. Orduan, horri guztiari ordena bat eman behar zaio, datu onenak, inte-resgarrienak, esanguratsuenak, berrienak... hartzeko eta zahar-kitua gelditu dena nolabait baz-tertzeko. Horretarako beren alo-rrean oso adituak diren lagun asko behar dira, egiten den zientzia hori guztia iragazten dakitenak. Informazio hori guz-tia jasotzeko, sarea bota behar da, eta hortik hautatu zerk balio dizun; gero laburbildu eta ko-munikatzeko modu hoberenak baliatu behar dira, guztiari gi-zarteak zentzu bat emateko. Xe-dea ezagutza gizarteratzea da.

Lan irekia eta gardena da. Ba-dira hainbat zientzialari, ikerke-

tan parte hartzen ez badute ere, iruzkinak eta kritikak egin di-tzaketenak. Gaiaz zerbait dakie-nak ekarpenen bat egiten badu, hausnarketa bat, kritika bat... horiek kontuan hartzera behar-tuta gaude, eta, jakina, onak ba-dira, lanean jasotzen ditugu. Be-raz, mundu guztian askok eta askok, oraindik ez dakigu zen-batek, guk epeka Interneten pla-zaratuko dugun txostenaren bertsioak irakurriko dituzte, eta beren ekarpena egin ahalko du-te, eta guk guzti-guztiak aintzat hartuko ditugu. Gardentasuna eta parte hartze irekia beharrez-koa da eta bermatuko dugu.

Zuretzat ardura ikaragarria da.

Nik bi gauza esango nituzke. Zientzialari bezala, eta umilta-sun osoarekin esanda, mundu mailan presidentetza hau eta horrelako ikerketa bat zuzen-tzea eskaini izana nire lana ba-lioestea da. Profesionalki satis-fazio handia da. Baina baita erantzukizun handia ere, eta lan eskerga eskatzen du. Esan-dako asetasun horregatik egi-ten duzu. Bakoitzak gauza hauek egiteko modu bat dauka-gu, nondik nora jorratu behar den badakigula sinisten dugu, eta geure ukitu pertsonala eman nahi diogu. Denok nahi dugu gure galderak eta ideiak bultzatzea. Horretarako aukera ematen du honek.

Ikerketa honek «Science» al-dizkarian aurre argitaratu berri duzun artikuluan pro-posatu duzunari helduko dio-lan esan daiteke?

Bai, artikulua horren gainekoa da. “Naturaren ekarpenen” ideia zientifikoki nola landu beharko litzatekeen azaldu genuen. “Science”-ko artikulua arrakas-ta izan du, oso debatitua izan

UNAI PASCUAL GARCIA DE AZILU

EKOLOGIA EKONOMIALARIA

Nazio Batuek bultzatutako IPBES gobernu arteko plataformako presidentekide

izendatu berri dute. Datozen hiru urteotan

150 laguneko ekipoa zuzenduko du

naturaren ekarpenen balioak ikertzeko.

Xabier Izaga Gonzalez

baita. “Nature” aldizkariak ere honen inguruko editoriala egin du oraindik orain. Zientzian zure ideiak mundu mailan eztabaidagai izatea oso interesgarri eta polita da.

Zertan da ikerketa?

Egin nahi duguna hauxe da: naturak sortzen dituen, edo guk gizaki bezala jasotzen ditugun ekarpen guztien balioak zeintzuk diren adierazi, nola eta zergatik aldatzen diren aztertu eta erabaki politikoetan zenbateraino hartu behar diren kontuan balio hauek ikusi. Hitz gutxitan, naturaren ekarpenen balioak zeintzuk diren jakin.

Zeintzuk izan daitezke balio horiek?

Naturaren “balio” kontzeptua oso modu ezberdinetan interpretatu daiteke. Balioak edo baloreak moralak izan daitezke, kulturalak, osasunaren ingurukoak, ekologikoak, ekonomikoak... “Balio” hitzak ertz asko dauzka, eta erronka handiena ertz guztiak kontuan hartzea da, orain arte egin ez dena. Zientziaren alor ezberdinek gai hauen inguruan zer esan duten jakiteko sarea botatzen dugunean, asko jasoko dugu; “balio” kontzeptua era askotan erabili, adierazi eta neurtzen da, ahal denean behintzat. “Balio” kontzeptu guztiak zilegi direla diogu guk, eta guztiak erabiltzen direla –ebidentzia bat da– eta kontuan hartu behar ditugula, ados egon edo ez. Are gehiago, alor zientifiko bakoitzaren barnean ere “balio” hitzak interpretazio ezberdinak dauzka.

Normalean jendeak balioa ekonomiarekin lotzen du.

Nik hitzaldiak ematen ditudanean, jendeari galdetzen diot zer den ekonomia. Jende gehienak «merkatua», «dirua» esaten

«‘Balio’ hitzak ertz asko dauzka, eta erronka handiena ertz guztiak kontuan hartzea da, orain arte egin ez dena»



du. Hori ez da guztiz horrela. Ekonomia askoz gauza zabala goa da, baina gaurko sistema dominantean hori irudikatzen dugu. Ekonomia gizartearen baliabideak antolatzeko ikuspegi bat da. Eta horretan merkatua erabil dezakezu, baina baita beste sistema batzuk ere. Ekonomia jende gehienarentzat kontu aspergarria dela iruditzen zait, hain dauzkagu barneratuta ekonomiaren kontzeptu hiperrreduktionistak, adibidez merkatua, burtsa... Nik ekonomia ekologikoan lan egiten dut, sistema ekologikoaren parte den gizartearen ongizatea handitzea ko zer kudeaketa behar den ikertzen. Ekonomia eta ekologia, ikuspegi zabal batetik, ezin dira elkarrekin loturarik ez duten bi gauza bezala aztertu. Eta dudarik gabe, gure arazo larri askoren jatorria biak independenteak direla pentsatzea da.

Ikuspegi zabal horri helduta, ikerketa berri honetan esango dugu naturak “nola” balio digun, geure ongizate printzipioen eta irizpideen arabera. Maiek edo kitxuek artoa edo patata ereitea ez da elikadura edo merkataritzak kontu bat bakarrik, haien identitatearen parte garrantzitsu bat dago jokoan jardun horretan. Patata batek edo batzuek ez daukate dolar baten balioa bakarrik. Balio ekonomikoa eta ekologikoa dute, baina baita kulturala ere, eta hori balio bat bada; ekonomia zentzu egokian ulertuz gero, balio ekologiko eta kulturalak ere kontutan hartu beharko lirateke.

Horregatik, zuen ebaluazioan naturaren ekarpen kultural eta oro har immaterialak ere kontuan hartuko dituzue.

“Science”-ko artikuluan esaten genuenaren harira, naturaren

ekarpenak hiru taldetan sailka ditzakegu. Bat, materialak: janaria, egurra, normalean merkatuetan saldu eta erosten ditugunak, horien eraldaketek eta ekoizpenek lanpostuak sortzen dituztenak... Beste talde bat erregulazio ekarpenena da; naturaren zikloak eta bizia bera ere erregulatzen dutenak. Bio-niztasunak bermatzen ditu erregulazio ekarpen asko. Adibidez uraren zikloa erregulatzen dute, eta horregatik da posible bizia, denentzat bizitza osasuntsu bat. Erregulazio ekarpenak behar-beharrezkoak dira, baina askotan ekonomiak eta gizarteak ez ditugu kontuan hartzen, gehiago erreparatzen diegu ekarpen materialei. Eta azkenik, ekarpen ez materialak ditugu, kulturarekin edota identitatearekin oso uztartuta daudenak.

Zu mendira zoazenean, gus-tuko paisaiak inguratzen bazai-



Argazkiak: Jaizki FONTANEDA | FOKU

tu, ongizate bat sortzen zaizu, eta izan daiteke zure bizitza horrelako ingurune batean ulertzen duzulako, zure arbasoen historiaren parte delako; sozio-logikoki barneratuta daukagun zerbait da. Naturaren ekarpen immaterialak garrantzitsuak dira gure identitatea sortzen laguntzen dutelako; gu giza talde gisa garen bezalakoak ulertzeko modu bat eskaintzen digute. Hainbat eta hainbat espresio kultural ditugu naturari lotuak: musika, literatura, artea oro har. Ekarpen immaterial asko ere onuraragarriak dira osasun mentalarentzat. Natura osasuntsuak osasun fisikoa eta mentala ere ahalbidetzen du. Frogatuta dago jendea psikologikoki askoz osasuntsuago bizi dela gustuko ingurune bateko parte sentitzen denean.

Eta hiru ekarpen mota horien balioak ikertuko dituzue.

Hiru talde horietan zer balio dauden eta balio horiek nola ari diren aldatzen aztertuko dugu, jendeak, munduko txoko ezberdinetan, ekarpen horiek nola baloratzen dituen jakiteko. Ikerketa pila bat dago horretaz, batez ere ekonomian ekarpen materialez, psikologian ekarpen immaterialaz ere bai; eta, filosofian, antropologian, zergatik balioak talde batean, inguru batean, bestean baino handiagoak diren. Hirian bizi diren askok erregulazio ekarpenak ez dituzte sumatu ere egin, eta landa eremuan bizi direnentzat askoz argiagoak dira, naturarekin erlazio estuagoa baitute. Eta zer baliok dauka pisu handiagoa, batenak ala bestearenak? Talkak ere badaude balioen artean, eta horiek ere aztertu behar dira.

Gure gizartean ekonomiarekin lotutako balioa da nagusi.

Baina kulturala denak balio ekonomikoa dauka. Jendea prest dago parke polit bat ikustera joateko, harreman kultural bat daukalako, eta hori ez dugu ikusten gure ekonomiako atalean; edonola ere, balio horiek errealak dira eta gizartearen kudeaketa egiteko kontuan hartu behar dira. Ekonomiaren parte izan behar dute eta mahai gainean jarri behar ditugu. Seguru asko, konfrontazio bat ikusiko dugu balio kulturalen eta balio ekonomizisten artean. Talka ikusten dugu ekologiaren eta ekonomiaren modu erredukzionista horren artean. Norbakoaren ongizatea handitzeko diseinatutako merkatuaren epe motzeko erabilera eta Planetak epe luzerako behar duen ikuspuntu ekologikoa etengabe talkan daude egun, “ekonomia” kontzeptua hazkuntza ekonomikora mugatzearen ondorioz. Ekologiaren eta ekonomiaren ikuspegi zabalago bat erabiliko bagenu, ez leudeke hainbeste talka. Beraz, interpretazio ezberdinak, balio ezberdinak hartu behar ditugu kontuan, baina gaur egun ez dugu horrela egin. Gaur egun ez ditugu gauzak eta prozesuak sistema ikuspegi batetik aztertzen; ez gara ulertzen saiatzen. Dena bereizten dugu, gauzak beraien artean lotuta daudela jakin arren. Zientziaren akats bat izan daiteke. Zientzia asko garatu da eta ezagutza zientifikoa hazten doa etengabe. Hori oso ona da. Baina bide horretan asko atomizatu da. Nire ustez, atomizazio prozesu hori izugarritzko akatsa da, gauzen eta prozesuen arteko harremanak, sistema ikuspegi batetik, aztertzeke ahalmena ez delako beharko litzatekeen bezainbeste garatu. Hori dela-eta, jakintza zientifikoa atzeratuta dabil Planetak dauzkan erronkei irtenbideak eskaintzeko.



*«Ekonomia jende gehienarentzat kontu aspergarria da, kontzeptu hiperredukzionistak hain dauzkagu-eta barneratuta...
Ekonomia ez da merkatua eta dirua soilik, bada gizartearen baliabideak antolatzeke ikuspegi bat ere»*

Badago, horrenbestez, zer aldatua.
Orain olatu betean gaude. Saiatzen ari gara diziplina zientifikoak, jakituria eta interpretazio desberdinen arteko loturak ikusarazten, integratzen. Sistema sozioekologikoak hobeto ulertzen. Ekonomia ekologikoaren alorretik urte askoan gaiotan lan egin ondoren, aurrerabideak nolakoa izan behar duen ulertzen saiatzen naiz. Erredukzionismo itzela dago alor askotan, bai zientzian bai politika publikoetan. Horregatik hartu dut lan hau erronka bezala, mugok horrela ikusten dituzten beste zientzialari batzuekin ba-

tera gauzak hobeto integratzeko aukerak badaudelako. Jakintza ezberdinak beste era batera antolatzeke ikuspegi zabalago eta orekatuagoa lortzen saiatuko gara. Badakit txostena aurkeztuta gauzak ez direla sorginkeriaz aldatuko. Baina nire aletxoak jartzeko aukera baliatu nahi dut. Uste dut orain mundu mailako txosten sendo bat egiteko aukera dugula, gaiotan eragina izan dezakeena. Aukera hau ezin dugu alferrik galdu.

Botere publikoek noraino hartuko dute aintzat ikerketa?
Egia da politika publikoek ez dituztela ebidentzia zientifikoak



behar bezala kontuan hartzen, eta ez bakarrik zientifikoak. Hor dugu tabakoaren adibide ezin argiagoa. Badira hainbat hamar-kada jakina zela minbiziarekiko lotura, ebidentzia zientifikoan oinarrituta, baina, tabakoaren *lobby*-ak eta estatuen zergak tarteko, politikek beste alde batera begiratzea nahiago izan dute. Hori lotsagarria da. Klima al-daketarekin, beste horrenbeste. Jakina, zientzialarien frustrazioa itzela da. Galdera bistakoa da: «Orduan, zertarako ari gara hau guztia egiten, suposatzen duen esfortzuarekin?». Uste dut hausnarketa interesgarri bat da-goela hor. Nik esango nuke Bi-

garren Mundu Gerratik aurrera, egungo mundu mailako eredu ekonomiko eta sozial dominantea garatu zenetik hona, mundu mailako egitura politikoek izugarritzko eragina izan dutela alor guztietako politika publikoen eraketan; adibidez, ingurumen politika, energiaren gainera eta industria oso banatuta egoitea eta politika horien atzean daudenen helburuen artean tal-ka nabarmenak izatea. Ingurumen politikan askotan pauso bat aurrera egiten denean, beste alorretako politika publikoek bi edo hiru pausu atzera egitea eragiten dute. Oraindik ere hori gertatzea tamalgarria da. Arra-

zoia niretzat garbia da: eredu sozioekonomiko dominanteak ezartzen dituen politika publikoak oso bat datoz aurrerabidea ulertzeko modu batekin, hazkuntza ekonomikoari lotutakoa, alegia. Hori da Bigarren Mundu Gerratik honako metaideologia bat, interes bakan batzuk babes-tu eta beste batzuk baztertzen dituen. Hori niretzat ebidentzia bat da.

Aldatzeko aukerarik sumatzen duzu?

Nire interpretazioa azalduko dizut. Akademiak –unibertsitateak eta– bere rolari eutsi dio orain artean sistema ekonomiko-sozial horretan, beharrezkoa izan delako; alde batetik, interes gehien sortzen duen ezagutza erabili ahal izateko, zientzia eta politikaren arteko eztabaidak nolabait onartu egin dira. Orain arte itxurak egin dituzte, antzerkitxo horri eutsi diote. Gobernuetan ere denak ez dira makiavelikoak, badaude beste jarrera bat dutenak. Baina zientzia eta politika publikoak ez dira behar bezala uztartu. Mundu honetan, gutxienez herrialde garatuetan, nagusi den liberalismoaren eta arrazionalismoaren arteko halako oreka batek iraundu; batzuetan funtzionatu du eta beste batzuetan itxurak gorde izan dira. Orain hori apurtzen hasi den zantzuak daude. Orain gobernu neopopulista batzuk lotsarik gabe publikoki adierazten ari dira ez dutela ebidentzia zientifikorik behar politika publikoak diseinatze-ko eta aplikatzeko. Zergatik? Beraien helburuen kontra doazen datuak erabili behar izango lituzketelako. Beraz, zuzenean ebidentzia zientifikoa baztertzen dute. Trumpen administrazioa adibide polita da. Diru publikoa kentzen ari da gustatzen ez zaion zientzia garatu ez

«'Hau aurrera egiteko modua da', esaten dute. Zer da aurrera egiteko modua? Niretzat gauza horietako asko atzera egiteko modua baitira. Zergatik ez daukagu eztabaida publiko bat horrelako gai mardulak dauzkagunean 'aurrerabide' hitzaren beraren gainean?»

dadin. Uste dut oso fase arriskutsu batean gaudela.

Eta txostenaren datuak eta ondorioak onartuko dituzte?

Horrelako gai sakonak nazioarteko erakundeetara eramateak inplikazio oso zuzenak ditu gobernuetan, azken batean NBEk diskurtso hauek nolabait legitimatzen ditu, eta zaila da gobernu batek 130 estatuk adostutako diskurtso bati publikoki kontra egitea. Bai, uste dut onartuko dutela. Gure lana estatuen interesengandik guztiz independentea da, hala onartzen dute. Gauza batzuk batzuei gustatuko zaizkie eta horiek ez zaizkie beste batzuei gustatuko, eta euren artean eztabaidatuko dute. Batzuetan oso gogorak izaten dira horrelako eztabaidak, eta saiatuko dira gure diskurtsoa moldatzeko presioa egiten. Ezin dute datuak aldatzeko eskatu, baina erredakzioa adosteko sekulako liskarrak egoten dira. Eta gu, noski, saiatuko gara, eta hori beste erronka bat da, geure integritate zientifikoari eusten.

Ebidentzia zientifikoaren aurkako praktika asko gizartearentzat ezinbestekoak direla esanez justifikatzen dituzte.

«Hau aurrera egiteko modua da», esaten dute. Zer da aurrera egiteko modua? Niretzat gauza horietako asko atzera egiteko modua baitira. Zergatik ez daukagu eztabaida publiko bat horrelako gai mardulak dauzkagunean “aurrerabide” hitzaren beraren gainean? Ongizatea zer den, eta horren arabera, aurrerabidea zer den. Zuk ongizatea handitzeko lehenesten duzuna ez da beste batek lehenesten duena. Hor daude ideologia, historia, kultura... Kontzeptu batzuk dominanteak dira, baina ez arrazionalki edo eztabaida publikoan gailendu direlako. Maiz inposatutakoak dira, batzuetan modu oso subliminean.

Argi samar dago ikerketa konplexua dela.

Guk egiten dugun planteamendua hau da: goazen balioa, ongizatea, natura zer diren bai teorikoki bai enpirikoki ikustera. Interpretazio guztiak aztertu behar ditugu, askotariko multzoenak eta askotariko pertsonenak. Konbinazio asko daude: hirietakoak eta landa eremueta-koak, indigenak eta ez indigenak, kultura ezberdinetakoak... Ikuspuntu eta datu kopuru ikaragarria dago eta horri zentzu bat eman behar diogu. Gustatuko litzaidake mezu bat islatzea. Seguru asko bat izan liteke balioak oso anitzak direla, jendeak oso modu ezberdinean interpretatzen dituela, azken urteetan izugarri aldatzen ari direla eta etorkizunean ere aldatuko direla. Horrek zer esan nahi du iraunkortasunari begira? Zein eragin izan dezake tokian tokiko politika publikoetan? Eta globaletan? Hori da hitz gutxitan ikerketaren helburuaren muina.



Luis JAUREGIALTZO | FOKU



IKUSMIRA

VUELTA EUSKAL HERRIAN

Vuelta. Espainiako Vuelta. Tourra Frantziakoa da eta, Giroa, Italiakoa. Euskal Herrian ere badugu bizikleta itzulia; Itzulia, hain zuzen. Itzulia Euskal Herrian egiten da, eta Vuelta eta Tourra ere sarritan igarotzen dira Euskal Herrian barna (Jaime Ignacio del Burgo EAEko estatutu berria idazteko ardura duen adituetako batek esango luke Itzulia ere Nafarroan sartu ohi dela). Gaur egun hiru lasterketa handienak beren herrialdeetatik irteten dira. Urru-nera irten ere! Behin Giroaren lehenengo etapa Israelen egin zuten. Badakizue, egin daitekeen Ekialde Hurbileko herrialde bakarrean, herrialde «europarrenean» alegia, nahiz eta datozen urteetan hiru lasterketa handi horiek Arabiar Emirerri Batuetan egitea ere ez litzatekeen harrigarria izango... Besterik da Vuelta eta Tourra Euskal Herri-rrira sartzea, antolatzaileek eta administrazioek ez baitute beren herrialdeetatik atera izanaren kontzientziarik. Edo beharbada bai, kontzientzia bai, inoiz lasterketarekin batera Euskal Herrian izan badira behinik behin, bertan erraz sumatzen baita beste herri bateko lasterketa sartu den kontzientzia... Xabier Izaga Gonzalez

Miopeak gara laino artean

**Xabier Mikel
Errekondo**

Miopeak gara eta ikusten duguna betaurrekoen arabera da. Herritarren gehiengo zabalak EiTB katearen, “DV”, “Correo”, SER... ikus-entzunezko nagusien betaurrekoetatik du ikusten. Nago herritar inozo askotxo ikus-entzunezkoek eguneroko berrien artetik zer eta nola ematen duten konturatu ere ez dela egiten, harago, EiTB taldearen eta medio nagusien informatzeko modu interesatuarekin bat egiten duela beste askok. Aitzitik, gizartearen zatirik kritikoena, elkarte soziopolitikoak nola he-

rritar konprometituek, gaitzetsi egiten dute.

Nago EiTBren txoritxoaren txioak kantuturiko soilak baino herritar gehiengoaren ontziak porturatzeko sirena kantuak direla, non miopeoi gobernuaren markako betaurrekoak dizkiguten jartzen. Hondakinekin izan jarrera adibide garbia da. EAJ eta PSEri interesatu zaien urteetan medioak alarma sortzen laguntzeko tresna bilakatu ziren, atez ateko bilketak konfliktoa sortzen zuelako gezurra hauspotzen, zikina eta garestia zela, kaleak arratoi erraldoiz beteta zeude-

la, eta abar. Egun, aldiz, dena normalitatea da, dena ongi doa eta ez dago gaiarekiko beste berririk gobernukideen mezua sendotzeko eta erraustegiaren bide bakar eta atzeraezina miopeon kontzientzian iltzatzeko ez bada. Gauza bat ziurra da, edo Europako epaitegiek Zubietako erraustegi toxikoa geratzen dute edo gipuzkoarrak miopeak eta minbiziak jotoak izanen gara urte gutxitan. Ausartentzat ikasgaia: EAJren interesei aurre egiten dionak haren mendekua ezagutuko du. Besarkada bero bana *#AinhuaIntxaurrandieta* eta *#IñakiErrazkin*. •

Ziztu bizian

**Maider Iantzi
Goienetxe**

Gero eta azkarrago doa bizia eta gero eta pazientzia guttiago dugu. Ondorioz, ez dugu ongi ikusten, ez gara konturatzen inguruan dugunaz, giblean uzten dugunaz. Gogoeta hori etorri zait oporretatik lanera bueltatu eta hiru egunera, sabelean, bularrean eta gorputz adar guztietan xinaurriak harat-honatean sumatzen ditudala. Ezinegona dut.

Bi egunez segidan ailegatu naiz prentsaurrekora lasterka, izerditan, ileak nahasita. Atzo, gaizki-ulertu batengatik, bueltaka ibili nintzen Hondarribian barrena. Oinez izan zen eta distantziak izuga-

rriak iruditu zitzaizkidan. Galdezka hasi eta ingelesez erantzun zidatenean jada irria eskapatu zitzaidan. Gaur urduriago nago. Istripu bat ikusi dut herri irteeran eta geldirik egon gara, pixka bat.

Geroago, peajera iristen, ze arraroa, auto pilaketak. Primeran edo segundak, barraskiloaren gisan, kasik geldirik baino okerrago. Ia CD osoa aditu dut, luze egin zait, denbora gainean sentitzen nuelako.

Hirian, semaforoak gorri, aparkatzeko ordaindu behar eta, gainera, horretarako ere itxaron (bost segundo luze!). Eta esprint ttikiak eginez segundoak lapur-

tuz, berreskuratuz, irribarrearekin «sentitzen dut» erranez sartu aretora.

Erredakzioan jakin dut herriko istripuan neska gazte bat hil dela eta zauritu batzuk ere badirela. Pantailak kontatu dit, egunero albiste gogorak kontatzen dizkidan bezala. Behar dugu pantailaren harresia, distantzia, babesteko, bizi ahal izateko. Baina behar dugu gogoeta ere, zer den garrantzitsua eta zer ez ohar-tzea. Kotxean geldirik gaudela aitzinekoari zerbait gertatu ahal izan zaiola konturatzea. Edo autobusean ilara sortu duen bidaiariak arazoren bat izan deza-keela. Behar dugu, dut, lasaitzea. •



Lerroon gainean, Katerin Artola dantzaria Oiartzungo plazan. Alboko orrialdean, Ordiziako txapelketan parte hartzen.

IKORKOTX-ORDIZIAKO UDALA

infraganti

KATERIN ARTOLA

Euskadiko Aurreku Txapelketa Nagusiko txapela jantzi zuen Ordizian pasa den larunbatean, aurrenekoz partaidetza mistoa izan duen edizioan. Pozik dago oiartzuar gaztea, gogor lan egin baitu horra iristeko, askok uste baino gogorrago: «Niretzat dantza kirola da, edozein kirol bezain exigentea delako fisikoki eta psikologikoki».


Ume-umetatik dago Katerin Artola Telleria (Oiartzun, 2001) dantzari lotua. Oiartzunen hasi zen lehen pausoak ematen, baina Lezora egin zuen salto ondoren, Lurdes Esnaola dan-

tzari eta jostunaren ondora. Azken urteak Esnaolarekin trebatzen eman ditu eta pasa den asteburuan, Ordizian, Euskadiko Aurreku Txapelketa Nagusiko txapela jantzi zuen. Aurten lehen aldiz, gipuzkoar erara dantzatutako Euskadiko Aurreku eta Soinu Zahar txapelketak bateratu egin dira,

eta partaidetza mistoa izan du txapelketak. Orain artean gizonetzkoak alde batetik eta emakumeak bestetik lehiatzen ziren. Hiru izan ziren dantzari bakoitzak dantzatu beharreko dantzak; desafioa, soinu zahar bat eta zortzikoa. Txapelketa mistoa izan den lehen urtean txapela jantzi

izana oso berezia izan da oiartzuar gaztearentzat. «Oso pozik nago. Ordiziako txapelketa berezia da, oihartzun handia dauka. Eta mistoa izan den lehen urtean txapela jantzeak sekulako ilusioa egiten dit», kontatu du. Astea berezi joan zaio, eskolara buelta eta komunikabideekin egotea egokitu baitzaio. Baina ez du irribarrea galtzen. «Aste honetan ez naiz entrenatzen ari. Atsedean hartu dut. Azken hilabetea gogorra izan da, ordu asko eta asko eman ditut entrenatzen, baina merezi izan du. Gainera, Lurdes min hartuta dago eta bakarrik asko aritu naiz». Ordiziakoa baino astebete lehenago Zarauzko Euskal Asteko Aurreku Txapelketa irabazi zuen, mistoa hori ere. Katerin Artolaren dantzari ibilbidea sariz eta txapelez be-

teta dago, umetatik nabarmendu baita plazetan. Aurreku Txapelketan, adibidez, laugarren txapela du. Aurreko hirurak gazte mailan lortu zituen. Dantzatzeko moduagatik ez ezik, estilismoagatik ere sari dezente lortu ditu, jantzienagatik. Eta horretan ere parte handia dauka Lurdes Esnaolak, berak josten baitizkio dantzarako erabiltzen dituen jantziak. «Ordiziako Aurreku Txapelketa gero eta zailagoa ari da jartzen, gero eta pieza zailagoak eta luzeagoak eskatzen dituzte, dantzaria gehiago luzitzeko eta publikoak gehiago gozatzeko. Horregatik, gero eta lan handiagoa egin behar dugu prestatzen eta entrenatzen. Nik, adibidez, pausoak hobetu eta hobetu aritzeaz gain, dezente lantzen dut forma fisikoa, oso garrantzitsua da-eta. Eta jantziek ere garrantzia dute. Mutilen kasuan, askoz jantzi arinagoak eta sinpleagoak eramaten dituzte. Gure jantziek, berriz, pisu eta bolumen gehiago izaten dute eta horrek zaildu egiten du dantza. Lurdesek sekulako lana egiten du nire jantziak ahalik eta arinenak eta erosoan izan daitezen», kontatu du oiartzuarrek. Ordiziako txapelketa erakusleihen polita da, euskal dantzan aritzen direnek askotan izaten ez dutena. «Dantzaren atzean lan asko dago. Jende askori ez zaio iruditzen, denbora-pasa bat dela uste dute, pausoak jakitearekin nahikoa dela eta ez da horrela. Niretzat dantza kirola da, edozein kirol bezain exigentea delako fisikoki eta psikologikoki». Lehen esan bezala, umetan Oiartzunen hasi zen dantzan. «Une batean sentitu nuen ja ez nuela aurrera egiten eta beharra sentitzen nuen dantzari



bezala garatzeko, hazteko. Horregatik joan nintzen Lurdesena Lezora. Gero Villabonako Oinkari taldean ere aritu nintzen, oso gustura, baina azkenean utzi egin behar izan nuen joan-etorrietan denbora asko galtzen nuelako eta ez nintzelako iristen», esan du.

Bereziki dantza tradizionala gustatzen zaio, baina garaikidean ere aritzen da. «Dantza tradizionala gustatzen zait, txikitatik horixe egin dudalako. Tradizionalak exijitzen duen zorrozatasuna gustatzen zait. Baina oinarri tradizionala duen dantza garaikidea ere asko gustatzen zait. Ikasturte honetan zehar, adibidez, Haatik konpainiak Erreterriako Dantzagunean antolatutako egitasmoan parte hartuko dut eta oso kontentu nago. Aiert Beobidek zuzenduko du ikastaroa eta niretzat erronka ederra da».

Horrez gain, Pasai Donibanen dantza klaseak ematen hasiko da haurrei, eta horrek ere ilusioa egiten dio. «Nik irakasle onak izan ditut bidean, ni dantzara lotzen asmatu dutenak. Gustatuko litzaidake nik ere berdina lortzea nire ikasle txikiekin, dantzara gerturatzeko eta dantzara lotzea».

Berak, behintzat, pasioz bizi du. «Nik izugarri gozatzen dut dantza egiten eta txapelketako urduritasun eta estutasun hori asko gustatzen zait. Dantza bakoitzak irauten duen minutu eta erdi hori topera bizi dut. Sentsazio oso berezia da».

Jakitun da bidea ez dela erraza, batez ere norberak ireki behar duelako. «Aurrera begira ikusten ditut aukerak. Iaz, adibidez, epaile hasi nintzen gazte txapelketetan. Izugarri gustatzen zait mundu hau». •

amagoia.mujika@gaur8.info

LURDES ESNAOLA

DANTZA IRAKASLEA

«Dantzariaren minutu bakoitzaren atzean ordu askotako lana dago»

Lurdes Esnaola dantzariak –txapelketetan aritua eta saritua– jardun du Katerin Artola entrenatzen azken urteotan. Oinkari dantza taldeko irakaslea da eta, horrez gain, Lezon aritzen da dantzariak trebatzen, banaka-banaka. «Niregana etortzen diren dantzari guztiak hartzen ditut. Gogoia eta ilusioa izatea da eskatzen diedan bakarra». Min hartuta dago eta azken hilabeteotan ez da ari dantzariak trebatzen. Baina larunbatean Ordizian izan zen, bere dantzariaren ondoan. «Txapelketaren egunean buruak dauka pisu handiena, burua hotz mantentzen jakiteak».

Zorionak, dagokizun parteagatik.

Oso pozik nago. Katerin oso-oso langilea da eta gogor lan egin du. Txapelketa oso gogorra da, dantzak gero eta luzeagoak direlako. Desafio bat eta soinu zahar bat segidan dantzatu behar dira, minutu eta erdi inguru bakoitza, topera. Ez da dantza ondo egin behar, oso ondo egin behar da eta horretarako sekulako indarra egin behar da. Dantzariaren minutu horren atzean ordu askotako lana dago. Jendea ez da horrekin konturatzen.

Euskal dantzari merezi duen balioa ematen al zaio?

Nire ustez, ez. Azken urteotan euskal dantza denbora-pasa bat balitz bezala hartzen dela iruditzen zait. Garai batean ez zen horrela. Nik ja baditut urte batzuk eta lehen dantza aldarrikapen bat zen, sentimendu bat, sustraitutako zerbait... Gaur egun ez zaio balio hori ematen. Eskola askotan, adibidez, eguerdian jartzen dituzte dantza klaseak, orduak betetzeko, eta hor etortzen zaizkizu haurrak sabela bete-bete eginda dantza egitera. Nola egingo dute, ba, ondo? Orokorrean, euskal dantzari ez zaio merezi duen balioa ematen. Kontua ez da bakarrik dantza erakustea edo ikastea, dantzaren bidez

Euskal Herriko kultura ezagutzea baizik. Adibidez, guk Lezon Euskal Herriko inauteri guztiak landu ditugu dantzen bidez. Bai haurrek eta bai gurasoek kultur ondare horren berri jaso dute dantzari esker. Jantziak garbitu eta plantxatu behar izan ez balituzte, jakingo al lukete gurasoek nolakoak ziren jantziak Bizkaian, Gipuzkoan, Araban...?

Txapelketak garrantzitsuak al dira?

Ni txapelketen aldekoa izan naiz beti. Beste kontu bat da txapelketa horiek nola kudeatzen diren. Nabarmena da txapelketetan aritzen diren taldeetan maila askoz hobe dutela. Gainera, dantzariarentzat pizgarri bat da. Futbolean dabilenak astebururo dauka partida. Eta dantza egiten duenak? Entseatu eta entseatu urtean ekitaldi pare bat egiteko... Txapelketan dabilenak uda guztia pasatzen du aureskua eta soinu zaharra entseatzen eta hori amaituta, fandango eta arin-arinarekin hasten da. Guk urte guztia txapelketetan pasatzen dugu eta haurrek pizgarri hori dute. Primeran ikasten dute dantzan. Askotan ikusiak gaude 12 urteko haurrak 18 urtekoak baino askoz hobeto dantzatzen. Lana eginez gero eta dantza seriotasunez hartuz gero, emaitzak etortzen dira.

Txapelketa garai betean, mina hartuta zaude.

Bai, eta sekulako ezusteko polita hartu dut. Laguntza asko izan dut. Pentsa, nire ikasle izandakoak eta nire alaba ari zaizkit laguntzen, beren artean lanak banatuz. Eta haurren finalaren egunean ere nire bi ikasle etorri ziren laguntzera. Lantalde ederra egin dugula konturatu naiz eta pozgarria da hori. Lezon entrenatzeko erabiltzen dugun lokala ere ikasle baten gurasoek uzten digute. Beti nire izena agertzen da, baina atzetik jende asko dago, lantalde oso bat. Denei eskerrak eman beharrean nago.



Garazi Goia - @GaraziGoia
Idazlea

Kafe-etxeetako espezieak

Londres mendebaldean, hiri zentroa eta aldirien artean dagoen auzo batean bizi naiz. Familia gazteen bizilekua izateko fama izan du beti, espazio berde ugari ditu, parkeak eta haurrentzako jolas lekuei dagokienez aukera ugari; jatetxeak, tabernak eta kafe-etxeak erruz, azken tendentziak markatzen dituzten dendak eta beharrezkoak ez diren baina tentazioari zirika egiten dioten beste hainbat denda.

Azken bi asteetan, goizetan auzoan zehar paseoak ematen nituen bitartean, beste “espezie” batzuk ezagutzera iritsi naiz. Banuen haien berri, baina egunerokotasunera zuzenean ikusteko eta bizitzeko aukera izan arte, zaila da haien mugimendu eta ohitura zehatzen berri izatea. Hemen deskribapen motza.

Habitata: Diseinu sofistikatu kafe-etxeak, estiloz retroak edo *urban-chic* ak edo akaso bien nahasketa. Bonbillak soka batetik zintzilik daude, eta apenas ematen dute argirik diseinu industrialeko mahai handietan. Denek une hura partekatzeko eta komunitate zentzu sendoagoa emateko mahai handiak dira, nahiz eta elkarri begirada bat zuzendu ere egin gabe dauden han eseritako guztiak. *Brunch*-ak egitera joaten da jendea bertara, jaki osasuntsuekin, adibidez madalena veganoak, ahuakatea zerealdun tostada batean limoi zukua gainetik botata eta almendra esnearekin kafea. Hiru libra balio ditu kafesne normal batek, baina beraiek “anormal” egiten dute; kafe alea kafe-etxean bertan txigortutakoa da, noski (Kolonbiatik ekartzea ez zen ekologikoa izango), kontu handiz esne kopuru zehatza jartzen diote eta aparrean eguzki baten irudia egiten dute, inguruan dagoen energia positiboa iradozikiz. Optimistak askoz ere hobeto bizi dira (ni ere horrekin ados nago).

Bi espezieak:

Bat. *Freelance* amak. 35-45 urteko emakumeak. Haurrak eskolan utzi ostean bederatzia aldera iristen dira. Haurrak izan zituztenean utzi zuten bizitza korporatiboa, eguneroko errutina hura bateraezina zen familiako dinamika berriekin. Diseinatzaile alternatiboen arropak soinean dituzte edo bestela kirola egiteko jantziak, kafe-etxetik ateratzean gimnasia joango dira-eta. “Proiektu” ezberdinetan lanean ari dira, askotan, definitzea zaila den proiektuak dira; baina enpresa-sortzaileak direla esaten dute, kontzeptu berri baten inguruan ari direla “lanean”. Denek komunean daukaten gauza adierazgarriena: finantzetan lanean egiten duen edo behintzat bien soldata adina diru etxera ekartzen duen bikotekidea. Bilerak egiten dituzte bezeroak izan litezkeen beste *freelance* batzuekin. Irakurtzen ari diren liburuak: Sheryl Sandbergen “Lean In” edo autolaguntzako liburuak (nola lortu oreka perfektua zure bizitzan eta horrelakoak). Mac ordenagailua daukate poltsa garesti baten barruan.

Bi. *Millenial* ameslaria. 18-25 urte inguruko mutila. Unibertsitatean politika eta komunikabide ikasketak egiten ari da edo bestela lanean hasi berria da. Lanean dabiltzanak, behin lehenengo hiru hilabeteak egin ostean, kudeaketa postu bat edo soldata igoera bat eskatzen dute. Inteligentzia artifizialari buruz hitz egiten dute, inbertsioez eta globalizazioaz. Inteligentzia emozional gabezia izugarria dute. Pertsonalitate gogorrekoak, gauzak oso garbi dituzte eta horrela adierazteko gaitasuna dute; ameslariak, idealistak eta ausartak dira. Egun batean, ziurrenik hemendik urte gutxira, norbere enpresa izango dute. “Egun batean” esatean, 30 urte bete baino lehen esan nahi dute. Noski, Mac bat edo tableta bat erabiltzen dute “lan” egiteko. Mundua ezagutzeko bidaiak planeatzen ari dira, helduen habitat hartan lekua bilatzen duten bitartean, gurasoek emandako dirutik dena. *Start-up* bat nola sortu edo *bitcoin*-etan nola inbertitu azaltzen duten liburuak jartzen dituzte denok bistan, mahai handiaren gainean. •



Londres mendebaldeko kafe-etxeek «espezie» berriak ezagutzeko aukera aparta ematen dute.

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



GOIRIA FAMILIA

KARLISTA ESANGURATSUAK BILBOKO KARTZELAN

Artikulua ilustratzen duen argazkia Bilboko kartzelan egindakoa da, 1870eko azaroaren 24an. Pedro Maria Piñera eta Fausto Urquizua Bizkaiko ahaldu nagusiak, Juan de Orue Bizkaiko batzorde karlistako presidentea eta R. De Echebarri Jaurerriko erregidorea ageri dira, baita L. Basterretxea eta A. Batiz presbiteroak ere. Urte horretako matxinada karlistaren saioak huts egin ostean kartzelatu zituzten denak. Argazkiko protagonistetako bik, Urquizuk eta Oruek, Amorebietako Hitzarmenaren sinatze ekitaldian parte hartu zuten Beltegi jauregian, 1872ko maiatzaren 24an. Irudi horrek 100 urtetik gora iraun ditu jauregiko hormetan. Egilea Luciano Carrouche frantziar jatorriko argazkilaria izan zen, Bilboko Barrenkale Barrena kaleko 17. zenbakian lan egiten zuena.

*Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua*

